Lorea Gernika
ANDRAZKO BAT

KOLDO IZAGIRRE

Koldo Izagirre

Lorea Gernika
ANDRAZKO BAT

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2015 Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2015eko maiatza
Edizio hau: 2015eko maiatza

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Begitandua neukan bisita...

Zer ote da hau, opari bat niretzat, mila esker, eta barrukoa ikusitakoan horrelako harritu bat, bekokia itzaltzea ere bai agian, baina azkenik, nahikatu nuen neure xaloan, asmatzen hainbeste ordu eman dudan eskaintza idatz diezaiodala eskatuko dit.

Joan nintzen, jo nuen, ireki zidan, eman nion.

Hantxe geratu zen zorroa mahai gainean, jaramonik ez, barruan zeukana igarria balu bezala.

Azaltzekoa nintzela ote zekien?

Goiz hartan bertan telefono kabina batean sartu zen errain gazteenari bezperan esatea ahantzi zitzaion kontu batez ustekabean oroituta. Jalgi zelarik aspaldiko lagun bat espaloian, beha egona. Agurtu gabe galdetu omen zion zer egiten zuen txabola zikin hartan entzerratuta. Ez zeukala sakelako telefonorik, ez zuela behar. «Zu... zu beti izan zara snob bat!» lagunaren sententzia. Hitz horixe erabili zuen, sententzia.

Snob horren esanguraz galdetu zidan eta ez dakit ezer argitu nion.

Zernahi ere, ez nuela uste halakoen multzokoa zenik.

Ez dakit irakurriko dudan, jakinarazi zidan speculooak ateratzen zituela labetik.

Kanela gehiegi nire dastarako. Oportoak, aldiz, arriskua zeukan.

Bizitzaren aurka zegoela esan zuen godaletak berriro betez.

Ideien hegaldia

Argi azkorrian uzten du ohea, Larrun gailurreko orratza doi bat zehazten hasi delarik daukagu plaiondoan bizikleta estekatzen.

Adin urtetsuan lo-laburrak izaten gara, goizenean ikusten ahal dugu Lorea Gernika hendaiarrok eta beste edozein edonork Ondarraitzen joan-jina egiten galtza piratek agerian uzten dizkioten aztalak uretan. Eta urteak ez ezik, loaren gaindia ez ezik, badauka Lorea Gernikak aztalak bezain sendoko arrazoi bat tenore honetan harearen gainean bakarrik promenatzeko. Euskal Herriko hondartza luzeenean, ehun metroko inguruan itzarritako amaren umerik ez daukala, oinak busti eta burua erne, pentsamenduan sartzen ahal da. Baitezpadakoa du isolatze hori, pentsamendua zalapartaria dela dakiten pertsona bakanetarik bat dugulako andrazko gordin hau. Baiki, ideiek solas egiten dute gurekin, eta berbaro hori, pentsamenduaren sinfonia edo kakofonia edo horrelako zer bat datekeena, gure kaskezurretik lekora entzun liteke, norbera ez ohartuagatik. Emazteki bat oinak uhinen azken farfailan beratzen: nehoren jakineko izan behar ez du-

tenak pentsatzen ditu lasaitasun horretan. Gero, oina petrilean emanik hondar bihiak behatz artetik kentzen dituela, «Zertaz gogoetatu naiz, funtsean?» egiten dio galde bakartasunari. Eta horixe da gehien arrangura-tzen duena, funtsean ez duela *deusetaz* pentsatu, ez daukala gogoan atxikitzea merezi duen ideiarik. Ahal-ke da. Egunak argitu du mundua, baina ez bere adi-mendua! Egoskorra baitugu, bihar ere Hendaiako hon-dartza ederrera etorriko zaigu goiztiar, inork ez dezan entzun zer pentsatzen duen noizbait pentsatzera hel-duko den horretaz.

Harroxko aitzindu du Lorea Gernikak eguneko lehen jendarme patruilako autoa, baina kaioek atzoko tankeran despeditu dute, trufaka, gogoetaren hegalak balira bezala.

Berokia

Inoizko hartan karrikan fistua entzun eta itzuli egiten zuen burua, xalo, barrez, eskua luzatuz edozein zokormazori esker oneko agurra eginez. Gero, adin ustetsua iragan zuelarik, xarmatzailea izatea erabaki zuen. Ez zizun burua itzuliko fistua birritan eginagatik. Fistua entzun eta, gizonezkoek berari, Santurtziko kale-plazetako mirabe politenari gizonezkoek egin miresmenezko fistu sarkorra entzun eta burua ez itzultzea, apeta bortitz baten aurkako borroka izan zen. Gogorra zinez ardia edo zakurtxoa ez izatea. Baina esker gaiztokoa, harroa, estua izaten saiatu zen. Ahaleginak bazeukan meriturik, onar dezagun. Lortu zuen, bai, fistuak isiltzea, burua itzultzen zutenak, bera barik, gizonezkoak izatea: baforearen brankak lez apurtzen zituen albo banatara espaloiak betean zetozen mutilen eta mutilagokoen koadrilak. Zelako branka izan ere, zelako goraztea, Lorea Gernikarena!

«Beroki bat merezi dut!».

Beroki bat benetakoa. Kontserba fabrikako eta hainbat udalanetako soldatak metatu zituen hartarako. Bilboko Gran Vían zegoen larrudenda alemanean

sartu zen noizbait. «Lehengo astean don Biktor Txabarriren alabak probatu zuen, baina hau beroki hau zure begirean zegoen. Zuretzat egina da, ez dago dudarik!». Osatua zeukan dirua, tamalez, apurra zen halakorik erosteko.

Ez karurik ez merkerik: protestatzearren, berokirik gabe ibili zen neguaren minenean.

Orain ilusioz beterik Uhainari erakusten dionaren lako bat jantzi nahi zuen orduan Lorea Gernikak.

– Zure aitak ekarri zidan, Moskura egin zuen lehen hegaldian erosi zuen.

Karrikan fisturik inoiz egin ez dioten arren, Lorea amamaren goraztea daukala entzun behar izaten du sarritan Uhainak. Baina ez du sinesten. Total bestelakoa da.

– Amama, zuk hau, zuk hau jantzi izan duzu inoiz?

Baietz, sarritan gainera. Adibidez? Adibidez, zer. Esateko nora joateko jantzi izan duen zarpatzar hori, posible ote den horrekin inon azaltzea.

– Inora joan behar da orain horrelakoa janzteko?

Ispilu aurrerako jantzi ohi du Lorea Gernikak hogei azeri zuriren larruarekin eginiko berokia.

– Zapata koxkordunak edo txankletak oinetan eta hauxe beste arroparik soinean ez duzula ispiluaren bistan paseatu. Horren hurreko plazerik!

Eta beste barik alde egin du sukaldera afaria prestatzen, armairu zaharren puskekin atondua daukan zazpi gorputzeko ispiluaren aurrean utzi du biloba. Eta neskatoak atea itxi du poliki, kisketari eman dio. Aitak ez dio inoiz aipatu Moskukorik. Une zirraragarria Uhainarena, tundrako hogei azeri zuriren artean.

Hasperena

Medikuaren aholkuz, eskailerak goiti eta beheiti ibiltzen da orain Lorea Gernika. Ona bihotzerako. Horrela ulertu dio behintzat Berako anbulategira ordezko heldu den sendagile gazteari, karrikan hotz baldin bada ibiltzeko pixkobat eskaileretan. Goiti eta beheiti saiatzen delarik ordea, «Sua izanez gero, hautsi» dioen oharrak hartzen dio behakoa. Etxepekoek segurtasun neurriak adostu dituztenez geroztik, kutxa gorri bana daukate paratua tranpalek, sua itzaltzeko bitsa sortzen duten tramankulu horiekin. «Sua izanez gero, hautsi!». Aldamenetik iragan eta hautsi gabe utzi behar. Hauxe tentaldia! Ezin etsiaren urragarria! Batzuetan, suteren bat sortzea nahi izaten du Lorea Gernikak. Lotsagorritu egiten da, ene! Biharamunean, garrak noiz azalduko egonaren egonez asperturik, sutea berak proboka lezakeela etortzen zaio burura...

Ur tantaren tortura honek, azkenean, gain hartu die emakumearen eskrupuluei: Bortzirietako hiriburuko udaletxearen aitzinaldean ageri diren Temperantia eta Prudentiaren irudi ikusgarriek axola ematen ez baliote bezala, burruntzaliarekin jota hautsi du kutxaren

beirazko atea. Bihotza uzkurtu dion isiltasuna ondoren. Hautsi du, eta zer? Deus ez. Mailadian jesarri da amatagailu kaiolatuari beha, gogoeta gogorretan sartua. Elkar sakon ezagutzeko solasa ukan du tramankuluarekin. Garrik ez, kerik ez, kedarrik ez, kiratsik ez, sirena hotsik ez... debaldetan jardun dute biek kexamenduka.

Hasperen egin eta eskudelari heldu behar izan gabetarik altxatu da Lorea Gernika. Etxeraino igo da ekintza heroiko baten aztarnak izan behar zutenak biltzeko isatsaren bila. Ez dago samurra, egiazki, humanitatearen salbatzea!

Kostaldi

Hogeigarren mendearen erdiko hamarraldia. Abuztuko azken egunak, Boulevard Saint Michel, Paris. Renault Alpine A 108 gorri bat heldu da Carmen hotel mandora. Leku ideala da Bixente Garat handiarentzat, Odeon antzokia bertan daukanez. Tarrapatan etorri zaion mutil apainari utzi dizkio autoaren gakoak, haren esku garajean sartzea eta maletak suitera eramatea. Mutilak pozik hartu du makinaren gidaritza, hiruna itzuli egin ditu zortzi talotan leun, laxo, lore, garajean sartu aitzin. Han, maletak jasotzen ari dela, argi printza bat ikusi du kopilotuaren aldean. Makurtu da...

Ba ote daki Garat jaunak hau daukala autoan? Norena ote?

Urte oroz bezala *Été Musical à la Côte Basque* antolamenduaren eskariz udaldiari distira ematera etorria zen Bixente Garat tenor aparrekoak burua laugarren aldikoz makurtu behar zuelarik txalo erauntsia eskertzeko, Lorea Gernika ikusi zuen. Lorea Gernika hezur eta mami, nolako mami, begien bazka, hantxe,

Baionako katedraleko lehen lerroan barre eta eskuzarta. Bis bati ekin behar izan zion *Les Bérrets Bleus de la Côte Basque* abesbatza lagun, eta *Maitia nun zira* interpretatu zuen jazz aire batez, Ravelek egin moldaketa omen. Zoramena izan zen hura, kostarrak bravoka eta malkotan, noiz ere Lorea Gernika etorri zitzaion, Lorea Gernika lili sorta erraldoi bat berari ematera, lili sorta eta pot besarkada! Frantzia eta Nafarroako tenor beldurgarrienak ospea zaindu beharreko landarea duenez, «*Le parapluie d'amour*-en oren erdi baten buruan!» esan zion neska eder xaloari ahapetik. Gihar bizian hunkitu zuen proposamenak Lorea Gernika: lehen isilekoa zuen amorante batekin! Xalo sortu eta xalo hazi, jatetxearen inguruan egon zen apur bat, Aturriren emanari beha, bihotza baretu nahirik. Xarmatzailea izatera deliberatua zuen berriki, eta horra non, uste barik, xarmatzaile profesional bat zuen xarmatu. Besoa urrundik inarroska azaldu zen hain zuzen Garat kantaria, Garat liraina, Garat maltzurra, kapelu zuria buruan, mitxirrika berdea lepoan, zuribeltzeko zapatak oinetan eta «Lorea!» errepika ahoan, leun bezain ozen. Pot bana masailetan berak orain, besotxokoa eskaini eta ezkonberriak elizatik nola jalgi ohi diren hala zen sartu *Le parapluie d'amour*-en bikote

ikusgarria. Lorea Gernikari barkamena eskatu eta joan-jin bat egin zuen sukaldera, xefa agurtu beharra zeukan. «Kabiarra zerbitzatzeko eskatzera joan da doike... Errusiako printzesa bat naizela pentsatu du honek!». Mahaiko morroiak xanpaina ireki zueneko, ostrak ekarri zizkieten. Berria zen hura Lorea Gernikarentzat. Bixente Garatek handiena hartu zuen. Zitroin tantaz artoski garaztatu eta, limurtzaile lakrikun, neska eder haren ezpainetara hurreratu zuen. Lorea Gernikak amorantea xoratzeko fazoinak eginez ahoratu zuen, hari so eta hurrupatzerakoan soinurik atera gabe. Ahoan erabili zuen muki hura begiak baturik, dastatzen zuelakoa eginez, eta bekainak harrotu zituen, umoreko, irensterakoan hartu zuen ikara disimulatzeko. Baiki, hezur gogorren bat joan zitzaion eztarrian beheiti mukiarekin. Loriatan zen Bixente betazal errenditu haiek, tanpez panpinatu masail haiek, galanteneko antzezpen hura ikusirik. «Errusiako printzesa bat ematen du!» pentsatu zuen. Fabrikako umea eta ez hain umea izan arren Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako Notre Dame kolegioetan pianoa, frantsesa, ingelesa ikasia zenez makilape eta morroilope, airoski ibili zituen Lorea Gernikak solas pindartsuen bide bihurriak Ravelez, hondartzako bainuez,

Miarritzeko kasinoaz, Deauvilleko zaldi lasterketez... Ezin esan ahalako atsegina zen neska hura, afarira ez ezik afalondokora ere gomitatzea merezi zuen. Larresoroko apeztegian zelarik otoitzaldietan amestu izan zuen emea zeukan bekoz beko modako tenorrak: konplexurik gabea, sanoa, eskualduna eta itxura guztien arabera hedonista landua. Baionan bertan eman zuten gaua, azaldu edo ez azaldu urririk zeukan Bixente Garatek *Hotel de la Côte Basque*-ko 344 gela uda osoan, suite bikain bat, *Été de Musique à la Côte Basque* antolamendukoek txera amultsuak egiten zizkietenez, gisa den bezala, goreneko musikariei, partikularzki bertako semea zen «Frantziako Orfeo berriari», kazetariek ezarria zioten goitizenaz aipatzearren. Hurrengo goizean, komunean jo behar izan zuen Bixentek «Ongi al zaude?» galdezka. Eskuak garbitu eta garbitu aritu zen luzaz Lorea Gernika. Tenorrak Europako xokolat onena gosaltzera gomitatu zuen Cazenaverenean, Port Neuf karrikako arkupeetan. Uzkur ikusten baitzuen bere aurreneko amorantea, perla erakustekotan egon zen Lorea Gernika, ostrak zekarren perla, elkar ezagutuak xantza ona ekarriko zielako zantzua izan zitekeelakoan. Baina ahalketu egin zen. Cazenaverenean ere ez zuten elekatzeko antzik. Esku

bat zabaldu eta azkazalei beha geratu zen Lorea Gernika. Hurrupa ttipiño bat egin zion xokolat beroari. Beste eskuko azkazalak ikertu zituen ondotik. «Munduko onena!» esan zuen gero kikara ezpainetara jasoz, baina Bixentek irri murritz batekin ihardetsi zion, gogoa beste zer edo zertan. Iduri luke Lorea Gernikak galduak zituela, gauetik egun, konplexurik gabea, sanoa, eskualduna, hedonista bertuteak. Horrela sortu zen tristura Bixente Garat tenor txalotuak elkarrentzat eginak zirela uste zuen arima delikatu bion artean. Hain delikatuak!

Renault Alpine A 108 gorriaren zolatik jaso du distira egiten duen zeratxoa Carmen hoteleko automutilak. Zapi zuri bat eskatu du sukaldean, berrienetarik. Bixente Garat Frantziako tenor gorenaren suitera agindu dio igogailuko mukizuari. Nolako birigarroa, Mauleko espartinak eta borsalino kapelua janzten dituen euskalduna! Errusiako printzesaren bat xarmatu bide du Côte Basquen!

Descartes

Antzinako Arte Klasikoa eta Historia Garaikidea landu dituzte orain arte. Pozik daude guztiak, pazientzia santuko irakasleak dauzkate eta klasearen erdia proiektore batekin azaldutako irudiak komentatzen igarotzen dute. Gaur Filosofia daukate, gai berria, urduri daude Hirugarren Adinekoentzako Ikasturtean izena eman duten hamalau ikasleak. Edukiko ote du irakasle gazte honek eroapenik aski gure garunen motelean ibiltzeko? Filosofia... Pozak dago urduri Lorea Gernika: pentsatu behar lukeen hartara iristeko bideak ikasiko ditu, edo iritsi behar lukeen hartarako ideiak! Hasteko, gelaren egitura aldatu du Markusek. Elkarri beha jarri ditu, biribilean. Berbetan ere, ez duela askorik eginen jakinarazi die. Horretan ez dago arazorik, gelan badituzte hitza hartu eta uzten ez duten batzuk.

– Esadazue, zer da zuentzat justizia?

– Baltzak zein zuriak, denak bardinak izatea! –bota du ez bat eta ez bi Aingeruk, Bermeoko komunista gogorrak, Arroxelako ontzietan hainbat marea eginiko gizonak.

– Ados –esan dio Markusek–, baina zurien artean, berbarako, denok bardinak ote gara?

– Ezta hurrik emon be! –Lorea Gernikak, haserre–. Aurreko baten autoa eroan zidaten udaltzainek minutu bi laga nuelako bigarren lerroan!

– Interesgarria... –Markusek, herabe itxurako irria eginez–. Aingeru, zer pentsatzen duzu horretaz? Nola antolatu behar genuke gizartea?

– Neuk esan nien udaltzainei Gernika anderearen autoa zela hura, eta ipinteko isun gogor bat zerbitzu sozialen aurrekontua gizentzearren.

Barre egin dute denek, baita txarto aparkaturiko autoaren jabeak ere. Horrela eman dute Filosofia lehen klasea, gizarteko arauak, askatasuna, egia... Zenbat iritzi, zenbat zalantza, zenbat ibili bihurri pentsamenduaren eskutik! Ongi betea, bai, ordu betea. Bilera politiko bat egin dutela esanen luke Lorea Gernikak, aspaldiko zirrara ezagun bat sentitu du eztabaidaren beroan. Zazpi loriatan da.

– Egon apurtxo bat irten aurretik... Zuek ez dakizue baina seme bat pilotu daukat British Airways konpainian –british, zeinen british Lorea Gernika lagunei!–, eta pentsatu dut hegaldi ederra egin geneza-

keela merke Greziara, zelan da... Eskultore klasiko haren harriak ikustera.

Eta izenak apuntatzen hasi da, txartelen eta hotelen prezioak jakin gura dituzten lagunen galderei jaramon egin barik.

– Zer, beldurra hegazkinei, Aingeru?

Baretu da zalaparta, irten dira gelatik filosofia ilunpean utzita, despeditu dira hurrengo eguena arte udaletxearen kainu biko iturrira iritsitakoan eta Doniene karrikatik hartu du taldetxo batek.

– Praxiteles! –Aingeruk, ibilia etenda kopetari esku ukaldi bat emanez.

– Descartes! –Markusek aldarri, atzamar arina tentetuz.

Hurrengo baterako utzi du Lorea Gernikak Markus irakasleari esan behar ziona, gure azti zilarraren antza daukala, Agosti Xahoren burua ikusten duela bere lepotik justiziaz diharduenean.

– Andrak zein gizonak! –erantsi du, filosofoari eta komunistari buru eginik.

Zirrara beldurgarri eder huraxe ostera, nolako gaztetua!

Benedictine

Belarriak galdu ditu Lorea Gernikak. Ez belarritakoak, belarriak baizik, hatz txikerra sartzen dugun zulotxoaren inguruko azorri parea. Lagunek ez diote sinetsi, belarriak ez dira edozelan jausten.

– Jaurti egin ditut, kendu eta harrika jaurti.

– Zakurren batek jateko be!

– Halan bada, bejondaiola!

Agerian dago beraz, belarriak kenduagatik ederto entzuten duela gainerakoon esana. Entzun gura ez dituenak ez entzutearren galdu baditu, alferrikako sakrifizioa egina da. Eta ezpain berbeta ikasi behar izan baldin badu, zer alderdi dakar entzun gura ez dena irakurtzeak?

– Sinbolo bat egin dut.

Horregatik moztu du ilea, hori ere egin baitu, Ibarrekutzeko iturritik edan izan duten txispagin guztiek ikusi ahal izan dezaten orain belarribakoa dutela Lorea Gernika: negua da baina komodan dauzka gordeak lepoko zapi zetazkoak. Sinboloa? Zer da hori! Mitin barria dugu hau!

– Belarritakoak janzten dituzten gizonezkoak ez dira andrazko bihurtzen, baina sinbolo bat erakusten dute!

Itzelak esaten ditu Lorea Gernikak! Zereko sinboloa, gizonezko bat belarritik eraztuna dindilizka?

– Elkartasunarena, geureganako elkartasuna, beti esklabo bizi izan garen andrazkooi zor digutena.

Bilarrean ari direnen bola talkek neurtu duten pentsamenduz beteriko isilune bat. Hurrupatxo bana Lorea Gernikak eta lagunek jokorako erreserbatuaren erdilunpean, kikarak heldukera sofistikatuan ezpaineratuz. Indarberriturik, erasorako ikuspuntu berriak hartuta, arestiko gaia ostera. Ea zeinenganako elkartasuna erakusten duen belarriak kenduta.

– Ez dakit –aitortu du.

Asaldatu egin zaizkio lagunak. Zer dela barik belarri biak kendu? Burutik behar du. Mahaiaren erdian dagoen Benedictineari oratu dio Lorea Gernikak.

– Nik neure zatia emon dut! –botila eskuan duela, ahapetik, kasinoko argi xaharrak areagotzen duen misterio giroan.

Eta deklarazino kiribil horrek zarratu du aste honetako auzia. Bigarren kikarakada bana edanik, aurreko zapatuetan lez ekin diote jokoari truk eta briska Eibar-

ko estazino kaleko artisten kasinoan garratzeneko lau andrazko hauek.

Orratzetik hari

Inguruko berdura ikusirik hostoa joandako arbolak zer pentsa lezakeen pentsatu du. Baiki, arbolaren garunean sartu da. Zenbait urrats aitzinago, inork ahapean xuxurlatua iduri, «Hostoa ez da orri adarretan baizik» pentsatu du. Eta berak indar egin gabe, larrazkenean zeharreko ikusmiralearen filosofia jabetzen zaio gogoaren mekanika dela medio. Arbola utzitako orriak zer pentsa lezakeen. Ahapetik berriro, xuxurla berdinak «Orria ez da orbel hankapean baizik». Nagia eman dio Lorea Gernikari ideia horrek zer esan nahi duen pentsatzen hasteak. Eta zer esan lezake orbela daraman haizeak?

«Arbola ez da zuhaitz biluzian baizik».

Eguna pentsatzen eman behar duela erabakitzen du noizetik noiz Lorea Gernikak, badoa leku bakartiren batera eta ez datorkio ideia mikorik, ez txikerrik ez ttipiñorik. Gero trena hartzen du jendearen ikusteak eta entzuteak zer pentsatua emanen diolakoan. Eta ber gauza zaio agitzen, ez datorkio deus. Honetaz edo horretaz pentsatu behar duela deliberatu gabe datorkio

beti pentsamendua Lorea Gernikari, galderak lehenik, arrapostuak ondotik.

Lorategiko bankutik altxatuta belaunak leundu dituenean, «Haizea ez da ezer karriketan baizik» heldu zaio ezustera. Bainuetxetik Kanbo barnera egin du jendearekin bat, karrikara, txaranga euskal aireak jotzen ari den alderantz, eta oraino ez baitu Pernoda dastatu, «Arbola adar, adarra haize, haizea orri, orria orbel...» pentsatu du berak mendreneko kitzikagarri artifizialik gabe, berak, bere oldez, karrikaren erdian. Azkenik, *Petit Casino* epizeriak espaloian erakusten dituen fruta ederrei so, «...eta karrika sagar!» amaitu du txarangako bonboarekin batera.

Baina «Horiek oro ez dituzu pentsamenduak» xuxurlatu dio Descartes nahastaileak, «Espantuak dituzu».

Dardara egin dio bizkarrezurrak, belarritakorik erabiliko balu lurrean lituzke orbel. Xalbador kolegioaren indartzeko bestak hartua daukan esparrura hurrandu da urduri. Tike mordoxka erakutsi du. Hautsi diote urdina eta bazkaltokian sartu ahal izan du. Jendetza, eta halarik ere egin diote lekutxoa. Lucien esaten dioten gizaseme adeitsua egokitu zaio eskuinean. Salda hartu ondoren Lucienek uretik edo arnotik egin

dio galde, eta godaleta betetzen diola, ezkerrean daukan emaztekia Amaia Ezpeldoi detektibe ospetsua dela esan dio belarrira pentsamenduaren xuxurla berean. Lorea Gernikak, animaturik, bururatu zaion itaunik gaitzena egin dio Amaia Ezpeldoiri:

– Karrika, karrika ote sagarrik gabe?

Eta detektibe ospetsuak, irribarretsu, hitzetik hortzera ihardetsi du zeruko hodei bakarrari beha...

– Eta gizakia, gizaki ote piztiarik gabe?

Arraiki solastatu da Lorea Gernika ezker-eskuin egin dituen lagun berriekin. Huntaz, hartaz eta zalapartaz aritu da zalu eta zale, xuberera apur bat praktikatzeraino bilbotar batzuekin. Egun eder honetan ikasi dituen gauza interesgarri guztiak oroitu nahi izan ditu oherakoan, baina loak urrikaltasun epelenean hartu du etzan baiko.

Gutaz

Katilutik hurrupa txipiak eginez paper batean idazten: Lorea Gernika idazten ari da. Inkestaren bat betetzen edo, pentsatu du aldameneko mahaiko andereñoak bidai agentzian eman dioten aldizkaria zabaltzerakoan. Zerbitzariak ordea papera zuri ikusi du katilua ekarri dionean, badaki ez dela X han-hemen ezarriz bete beharreko horietarik. Florida parkeko emakumezkoen solasak zelatatzera etortzen den nobelagile krisiatuak «Zure ahotsa entzuten dut nire bizitzaren isiltasunean» idatzi duela eginen luke, horrelako esaldi eztimerkeren bat. Horrek arrunt arranguratua utzi du, irudimen eskasiaren froga egin zaio, pertsonaia idazten ari dena idazlearen karnet intimoa balitz bezala. Ideia horretan sakondu behar duela erabaki du hala ere, eta apunte batzuk hartu ditu musuzapian. «Itxaron iezadazu apur bat, ez naiz berandutuko!» idatzi duela uste du urrunagoko alargundu berriak. «Badakit berandu dela horrelakoak idazteko, baina idazten ari naiz edozelan ere» irudikatu du ordu honetan ilunabar oroz hemen barrena futinatzen ikusten ahal dugun nobelagile kanonikoak. Esaldi ona deritza,

gutunketako ipuin baten hasiera izan liteke. Esprintatu egin du pozarren nobelagile krisiatuari agurrik opa gabe, Gasteizko futinlariek ez dakite zer den lasterka gozatzea! Auskalo zer idatzi behar duen, baina nik esanen nuke testamentu kontua dela, pentsatu du zerbitzariak, eta baluke fidagarritasunik, gainerako susmalariek baino eskarmentu gehixeago daukanez bezeroetan. Zoroa ez bestea! Katiluan whiskia edukiko du horrek! Eta gutaz ari da! Idazten! Gutaz idazten! Horrelakoak mahai biribil txipian berbekin borrokan ari den andrazko ederraren loba zuhurrak marmarka esan dituenak Frai Frantzisko de Vitoria ibilbidean gora, sukalde lanak egitera doan jauregia bezain neobaskoa gizona. Izebak, artean, anbulategiko erizain batek eskatu dion zurrukutunaren errezeta dihardu idazten.

Hamaiketakoa

Amaitu da Iurrematea. Hildakoaren seme nagusiaren agindura, Tolosa zaharrera abiatu dira oraino bizirik dauden seme-alabak, bilobaren batzuk eta Belkis, zenduaren laguntzaile nikaraguarra. Ohitura zaharra, ohitura jatorra, gurasoen kultura utzi eta hobeagorik hartu ezinean dabilen zenbaitek, Lorea Gernikaren ahizpek, adibidez, marmarrean iraindu behar dutena, «Ama kanposantuan utzita bagoaz ba tabernara!». Axola zaie hauei hildakoak bidean ezagutuko duen gosea! Errespontsuan, apaizak ez duela amaren izena aipatu jakinarazi die. Isiltasuna. Zubiberrin, «Zer esan duzu lehen?». Apaizak, errespontsuan, ez duela gure amaren izena aipatu. «Ez?». Ez, «Gure arreba» gora eta «Gure arreba» behera aritu da, izenik esateke. «Ez naiz konturatu». Inor ez da konturatu, Lorea Gernika bakarrik.

– Zakur bat bezala lurperatu dugu ama! –irten zaio barruenetik, ezer ezin esan bat sortuz.

Salda, kroketak, zankarra, zuri eta beltz ardoz: har ezazu indar, ama. Eta denek jakin dezaten, apaizak ez

duela amaren izena ahomentatu du ostera Lorea Gernikak.

– Bai zera!

– Beti aipatzen dute, izeba!

Isildu egin da. Agidanez, katabuta jaisten ikusteak sortzen zien minduran bildu dira gainerakoak. Eta bera? Apaizak otoitza ongi edo gaizki errezitatzen zuen zelataka! Amari maitasun mezuak bidali edo heriotza hausnartu, horixe egin behar zukeen Lorea Gernikak. Zakur bat bezala lurperatu dutela berriz esateko gogoak eman dio. Zertarako baina? Hitza kendu behar zion apaizari, «Anttoni! Anttoni!» xuxurlatzearren edo oihukatzearren. Baina hainbatetan gertatzen zaio, eta honetan ere huts egin dio une historikoari. Burumakur geratu da, begiak onddo kroketei emanak. Eskuineko eskuak zirkin txipi bat egin du platertxora. Ez ahal zen inor ohartuko! Besoak antxumatu ditu, gosea kendu diotela erabaki duenez. Mahaiaren beste muturrean Belkis dauka beha. Ez da ausartzen esaten arrazoia duela, apaizak ez duela Anttoni aipatu. Hori interpretatu du Lorea Gernikak behintzat haren begietan. Gero galdetuko dio, irtendakoan, baldin une batez biak bakarrik egokitzen badira.

Ez, kasik nahiago ez jakin.

Komunerako aitzakian altxatu eta barrara hurbildu da. Zenbat den. Mahai osoarena, noski. Badaki seme txatxu horrek haserre eginen diola bihar-etzi. Edo berehala azalduko zaio bertan «Zer ari zara orain ere!» esanez, gordetzeko diru hori jainkoarren.

Diktadura

«Ateak ixten. Gorantz».

Etxeko igogailuan aldi oroz oharrak ematen dizkion gizonezko berbera hizketan bortxazko jendetasunaren ahobetean. Francoren garaian emisora guztiek eman behar zuten Radio Nacional de Españaren «egunkari mintzatua» gaztigatzen zuen ahots huraxe ekarri dio gogora, metaleztarri bat hitzak ebakitzen.

«Milagarren solairua».

San Pedro barik, hangoikoa bera azaldu zaio PVC zuriko trapezio batean jesarrita Ikea markako altzariz hornitu biltegian. Laranja zukua dirudien likido batez betetako Insalus botilatxoa luzatu dio manikura egin berriko eskua erakutsiz, baina Lorea Gernikak ukatu egin dio eskuaren ahurra alto batean erakutsiz.

– Esadazu, Lorea Gernika bihotzekoa, zergatik hartu behar zaitudan zu zeruan –galdegin dio hangoikoak zimur–, eta ez goiz honetan elkarrizketatu dudan hiru milioi eta erdi horretako beste inor.

Itxuraz, kargulant lanpostu baterako adina jende dabil zeruan sartu nahian.

– Egin ezazu zure merituen defentsa.

Zelako dezepzioa Lorea Gernikarena! Lehiaketa bat gainditu behar zeruan sartzeko!

– Barka ezak, mutilzaharra. Ez diat horrelakorik eginen.

Harritu egin da hangoikoa, orojakilea izanen zela ziurtatu zioten izendatu zutenek.

– Ni ez nauk lehiatuko neure hurkoaren kontra!

– Zergatik ez ba? –hangoikoak, burua Lorea Gernikarengana hurbilduz, mehatxu keinua noski gorreriaren estakuru.

– Hiru milioi eta erdi horiek, haurride ditudalako. Ez denak menturaz, baina gehienak.

Irri zuri bat egin du mutilzaharrak, kulunkatxoa eragin dio trapezioari.

– Nork abisatu dizu lakio-galdera hau egin behar nizula?

– Gizarajoa –Lorea Gernikak miresgarrizko bare–, goitasunaren gorenean hago...

Trapezioak gorantz egin du brastakoan hangoikoa goikoagoa bihurtuz, urrun, ikusezin, Jehova, Allah, Manitu, Yahve, Unkulunkulu, Wakan Tanka guztien batasuna eginda.

– Eta hala ere nik bezala jesarri behar duk ipurdiaren gainean! –egin dio oihu.

Sobera gezurte daramatza lepoan Lorea Gernikak gau izartsuari eta panfleto komertzialei fidatzeko: bultzaka eta ukondoka sartu behar den lekua ezin liteke paradisua izan.

– Beraz, infernura? –hodei guztiek orro batean.

– Inpernupera! –erantzun du andrazkoak harro, amildu nahi eta lehenbailehen.

«Ateak ixten. Beherantz».

Igogailuaren ahotsak, hain zuzen, euskaraz egiteko seta hori du mingarriena. Betaurreko ilunak eta bibote zorrotza begitantzen ditu Lorea Gernikak haren mintzoaren aurpegian, orain Francoren morroiek ikasi egin baitute euskara ahoskatzen. Francoren betaurrekoak Pinochetek jantzi zituen gero, Pinocheten irudia zen ahots hau Pinochet baino lehen, hari hartu zizkion aurpegia, bibotea, betaurrekoak. Orain neutroa izan nahi lukeen doinuan dihardu, euskaldunona ez den azentu horrekin. Diktaduraren ahotsa da, krimen guztien ahotsa.

«Milagarren sotanoa».

– Sagarra hartu zenuen baratze debekatutik!

Bizartxo gorria dauka eta plexiglaseko etzangu gorri batean errezibitu du, biluzik, lilitxo pinpirina, nargile bat hurrupaka nare, naro, nakar.

– Bekatu larria egin zenuen.

Sinets liteke hanbehekoak ez duela ikusi ere egin, ahotik jalgitzen duen keari ditu begiak. Lorea Gernikak ongi ezagutzen du gizonezko mota hau: emaztearen ikara playboy unatu itxuran estaltzen dutenen sardakoa du.

– Bekatu larria egin baldin banuen ongi saritu egin beharko nauk, txo!

Deabruak bizartxoa pentsakor laztantzen duela baliatuz, aspaldi esan nahi ziona bota du Lorea Gernikak, kolkoan zekarren.

– Hangoikoaren morroi jarraitzen duk beti... Gaiztoak zigortzen! Guztiahaldunaren boterea indartzen! Zer deabru mota haiz hi?

Haserretik negarrera egitekotan da Satan dohakabea.

– Noiz bihurtu behar duk autonomo?

– Bizimodua karu dago! Hain da lasaigarria hilaren azkenean soldata edukiko duzula jakitea!

Esperantzazko inarra hala ere deabruaren begi tristean.

– Lorea Gernika, uste duzu bilduko nukeela sufrearena egiteko lain neure kontu jarrita?

Ikatza zer den irakatsi behar dio sugin epel honi... Deus ez da ziurtatu ziguten bezalakoa.

– Nork esan dik ez duela lantegia Txinara edo Indiara lekutuko? Hangoikoaren hitzari fio haiz? Noiztik haiz fededuna?

Dardara batek inarrosi du orain deabruaren bizartxoa. Zutitu egin da, eztulka. Etzanda zirudiena baino are ederragoa da, begiaren lilura, bihotzaren xarma. Oro da limur.

– Eta inora lekutzen ez badu, ez dakik deabru merkeago bat ekartzen ahal duela, extrakomunitario bat, ordu berezirik eta aspalditasun eskubiderik gabeko kontratu ziztrin batekin, hi kaleratuta?

Satan ederki bizi izan da inozotasunean munduren mundu, eta orain, atso honek...

– Esadazu zinez, Lorea Gernika, zu... Zu hangoikoaren mezulari zatoz, ezta?

Orain bai, orain Asmodeo, Astarot, Beltzebu, Leviatan, Luzifer eta Mefistofeles batera ikusi ditu egiazki Lorea Gernikak: belarriak gorosti orri bana, bekainak azentu zirkunflexua, mihia Ezpeletako biper, Azpeitiko plazan gogorrenak jotako akerraren adarrak kopetan...

– Ez aldatu gaia, txo. Nik mundua bekatuan sartu nian hangoikoak debekatu sagarra hartu eta Adani jatera eman niolarik.

– Baina, Lorea maitea... Zer nahi duzu? Esadazu, zertara azaldu zara hemen?

Lorea Gernikaren poza! Une hauxe! Ametsetan ere!

– Gizakia, gizaki ote piztiarik gabe?

Eta hori entzunik, deabrua, bi milioi legio galtzagorri meneko dituen hori bera, amorru gorrian kiskaltzen ikusi du Lorea Gernikak, arrautza ustelaren kiratsean.

«Gehieneko karga gainditua. Irten lehenbailehen. Gehieneko karga gainditua. Irten lehenbailehen».

Igogailuari euskarazko ahotsa kentzeko eskatu du etxepekoen bileran. Euskara kendu? Horixe behar genuke! Erdara kentzea erabakitu dute Lorea Gernikaren nahikari tamalgarriaren aurka. Debaldetan izan ditu argibide guztiak, Hangoikoa, Satan, Franco eta Pinochet.

Bisita

Jogurtak jan epean dauden ikusteko zabaltzen dute frigorifikoa, gontzak olioztatzeko premian daudela esanez miatzen dituzte armairuak Bohemiako beirateria osorik dagoen, tiraderak arakatzen dituzte bankuekin egin dituen azken tratuen berri jakitearren.

– Ez ote zara bakarregi bizi?

Laguntzaile bat kontratatu nahi diote Lorea Gernikari. Diruak ez lukeela arazoa izan behar gaineratzen dute denek, geroz gardenago.

– Ene! Zer egiten du gizon horrek hor?

Lurrin atsegina hedatu da etxean. Ez sobera heze, ez sobera lehor, harroak, apatzak eta laranja kutsu, hagitz bizkotx onak egiten ditu errain honek, seme zaharrenaren emazteak. Batzuetan arratsalde osoa ematen du sukaldean. Horrela, elemeleka, jakin nahi duena kentzen dio. Errain guztiak eta alaba guztiak eta seme guztiak garuna ikertzeko asmoz etortzen zaizkio bisitan, geroz maizago.

– Gizon horrek, non?

– Gizon bat daukazu lo-kurrunka egongelako sofan!

Bizkotxa puztu da jadanik, azala kiskali aitzin atera behar du labetik. Seme batek oparitu dizkion silikonazko manoplak hartu ditu mahaiaren tiraderatik.

– Emaiozu inarrosi bat! Goiz osoa darama lo! Ezer jan gabe dago azken hiru egunotan!

– Baina nor da, zer egiten du hemen, nola sartu da?

– Langabezia asmatu zuenak merezi luke...! –bizkotxa balkoira atera baino lehen, hotz dadin.

Erraina sukaldean geratu da bekokia astun. Argibideak behar ditu, jakina. Ez du konprenitzen. Arrunt kezkatua da.

– Ez dakizu, Anita, txoriak arranpaloaren buruan egiten duela habia batzuetan?

Beasainen bertan, Oriamendi karrikako estalpean topatu zuen Lorea Gernikak gizona. «Nik behar dudana ez da zure dirua» zeukan idatzia kartoi puska betean.

– Baina orain ez gaude udaberrian!

Horrela errainak, txoriei buruz ariko balira bezala.

– Diru gehiegi daukat nik. Dirua arazobidea da beti.

Zer ote litekeen alabek eta errainek aipatzen dioten sobera bakar bizitze hori. Zer ote den aski bakar

bizitzea. Zer bakar samar. Pentsamendu horretan Lorea Gernika, hiru katilu zuri, hiru musuzapi zuri, hiru xarde, hiru zalitxo ipintzen dituela mahai gainean. Baionatik ekartzen dioten kakao potoa atera du gero, munduko xokolat onena egiteko. Eta errainak Lorea Gernikaren burua ikertu nahi: dirua arazobidea delako horrek ikara berri bat ekarri dio.

Lapikoa

Libratu du noizbait bakartegia, lasaitu dira ilarakoak, hurrengoa sartu da eta pauso bana eman ahal izan dute. Errezel urdinaren ondoan geratu da Lorea Gernika papeleta zorrotxoan ezin sarturik, eta lerroan dauden guztiek ikusi ahal izan dute zein den andrazko honi horrenbesteko lana eman dion hautagaia. Hauteskunde mahaira hurreratu da gero zorrotxoa eta nortasun agiria esku banatan oratuta. Zerrendan ageri dela frogatu dutelarik, bozkatzeko baimena eman dio presidenteak. Paretari dauzka begiak liluran Lorea Gernikak, Deustuko umeen marrazkietara: zuhaitzak, arrainak, hegaztiak, katuak, baserriak, bizikletak...

– Bozka emon zeinke, anderea!

– Egun on, bai! –ametsen batetik, dirudienez.

Bozka emateko txandaren zain gibelean daukanarengana itzuli da.

– Aizu, zuk zeini emon behar diozu bozka?

Herritarra, berrogeita hamarren bat urte izanen dituen luzeko langabetua, zer erantzun ez dakiela geratu da masailak sukarretan.

– Barka egizu, anderea, bozka emotea egitate sekretua da! –deklamatu du presidenteak ozen, harro, bere rola jokatzeko egokiera profitatuz, zutundurik.

– A, orduan itzuliko naiz bihar! –anderea delakoaren erantzuna.

Patioko epelera egin du lasai bozketa bulegoa bihurtua duten eskolatik, presidentea, bigarrena, bokalak, apoderatuak arra bete aho lagata. Bermuta hartu behar duela erabaki dueneko, besotik heldu du neska batek. Ez du ezagutzen baina «Lorea! Lorea!» esan dio, «Arrazoia daukazu!». Barretxoa egin dio Loreak, ikara ezin gorderik.

– Demokraziak ezin du izan egitate sekretu bat! –erantsi du neskak ozen, harro, bozka ematera datozen deustuarrek entzun dezaten.

Presa daukala esan dio Lorea Gernikak, lapikoa sutan utzi omen du.

Gero eta istripu larriagoak dauzka karrika zapaltzen dueneko.

Bizitzaren aurka

Gaueko *Ataun* itzultzeko epea amaitu dela jakinarazi diote, emailik ez dauka eta telefonoz, udal liburutegitik. Oker dagozela azaldu die Lorea Gernikak, ondo epe barruan itzuli zuen irakurketa laurdenean utzita, abrozidu egin zelako. Hura eurizkoa egun hartakoa! Horregatik oroitzen da, erauntsiaren erdian abiatu zen liburutegira, irakurketaz aldatzeko gogoa zeukalako. Xehetasunok berehala eta ziurtasunez eman dituen arren, aste bete eta gehiago omen da ekarri behar zukeela, eta mesedez, itzultzeko liburua albait arinen.

«Zer uste dute horiek?».

Zamarra urdina jantzi eta autoz beteriko zintarrian zehar abiatu da soseguz eskuak sakeletan. Neke samarra zaio liburutegia dagoen bazterrerainokoa, bazterrean baitago, hain zuzen, Bilbo Handiak zatartu duen herri gibelgaldu honetan. Dosifikatu egin nahi ditu indarrak. Ez du arnasa larri eta bihotza punpaka iritsi behar, eztabaida gogorra izan liteke, tenplau Lorea Gernika, tenplau. Ibai ilunaren ertzetik doala, Jose Migel Barandiaranen nobela apokrifo horren pasarteak oroitzen saiatu da, alferrik.

«Zer uste dute horiek?».

Benetako literaturak ezabagaitzeko zantzuak uzten dituela esan zien aurreko batean irakurle txokora etorri zitzaien idazle handiak, nobela errazak barriz segituan irakurri eta segituan ahazten direla, maitasun errazak ahazten diren antzera. Nobelak ibaiaren parekoa behar ei du izan, bere estura eta bere zabalguneekin, baina beti gure burua lantzen orririk orri...

«Geuk irakurketari bultzaka jardun behar izan barik».

Hori entzunda Baionako saltegi erraldoi batean sarrerako ate itzulkarian inoiz ikusi zuen oharraz oroitu zen Lorea Gernika, eta huraxe ekarri zuen berak eztabaida literario hartara.

«Ez bulka, bera da ibilki».

Idazleak algara egin zuen, ez zuen ezagutzen eta egokia iruditu zitzaion, zinezko nobelaren metafora, guk bulka behar izan gabe doanez ibaia ere. Eta baimena eskatu zion ate itzulkariaren figura erabiltzeko berbaldi literarioetan. Zelako harrotasuna Lorea Gernikarena, berea zen aurkikuntza erabiltzeko baimena emon zionean gure letretako izen handiari!

– Nik liburua aspaldi itzuli nuen barren.

Ez du izan abagunerik haserretu egin behar lukeela pentsatzen hasteko be. Monitorea erakutsi diote eta hantxe irakurri ahal izan du, garden eta urdin, «Gaueko Ataun» eta beherago «Mailegatua».

– Etxean edukiko duzu ahaztua, Lorea. Ez larritu –medikuaren senera egin dio berba andrazko betaurrekodunak–, irakurle leialenetariko bat zara, normala da horrelakoak jazotea.

Hain gozo tratatu du, hain ulerbera, hain lagun, malkoa etorri zaio Lorea Gernikari. «Inori lana emoteko baino ez dut balio. Liburutegia ordu erdiz uzterik izango balu nirekin etorriko litzateke etxera liburua bilatzen laguntzearren».

Etxeko gela guztiak harrotu ditu, sukaldeko armairu eta tiraderak, komuna, ohe gaina, barrua eta azpia, mahaitxoa, zamarretako sakelak, poltsak, egongelako apalategi guztiak, birziklatzeko paper meta... Zorua aldizkariz, diskoz eta errezeta liburuz betea ikusirik, malkoa ez baina birao gizena etorri zaio.

«Ni hemen madarikatzen eta... Eta horiek egiten ete dute beharra ganoraz? Nor da hemen dantza eragiten diguna txistua joten kantzau barik?».

Taxian joan da liburutegira, leher egina dago eta hogei minutu ixteko. Zuzenean jo du N sailera, N-bar,

hantxe aurkitu du *Gaueko Ataun*, hantxe. Hartu du, eroan du kontrolera, sudurpean ipini dio gozo eta ulerbera eta lagun mintzatu zaion liburuzainari. Betaurrekoen gainetik behatu dio azalari zeharreko ikusi bat emon ostean.

– Horra! Etxean zeneukan ahaztua, Gernika anderea! Sarritan jazoten da!

Horixe esan dio, hitzez hitz.

– Barkatu aizu, apalategitik hartu dut oraintxe. Gotzon Barandiaranen *Errotik*-en ondoan zegoen.

Barretxoa egin du kargulantak. Ez dio onik egin Lorea Gernikari. Metro erdiz hanpatu ditu ugatzak arnasa hartu beharrez.

– Nik hau aspaldi ekarri nuen, aspaldiago eroan nuelako nik neuk. Hementxe zegoen, joan eta bertan. Zergatik deitu didazue esanez belu nabilela itzulketan, itzuli barik daukadala maitasun errazak bezain nobela antojugarri hau berau, *Gaueko Ataun* izenekoa?

Liburuzainak, hasperentxoa eginik, monitoreko fitxa erakutsi dio berriro, «Mailegatua». Eta zenbaterainoko pazientzia daukan nabarmen erakusteko «Entzun, Lorea!» esan dio gozotasun adeitsuan.

– Sarritan gertatzen zaizkigu horrelakoak. Jende askori ahazten zaio liburua edo CDa edo DVDa garaiz itzultzea.

Lorea Gernikari ez, sekula horrelakorik, behatzeko ordenagailuan zenbat aldiz urratu duen itzultzeko epea. Ez entzuna egin dio liburuzainak.

– Urte asko daroatzat hemen lanean... –erantsi du nekatu antzean, milaka liburu bizkar gainean garraiatu izan balitu ez zuen horrelako ahots hebaindua aterako–, arazo guztiak ezagutzen ditut.

Horrelaxe, hitzez hitz.

– Etxera joan zara, alferrik bilatu duzu eta halako batean gomutatu zara lehengo astean ekarri zenuela. Etorri zara eta hortxe aurkitu duzu, apalategian, zeuk laga zenuen lekuan. Beti ari gara esaten liburuak hemen entregatu behar direla, ez dituela nork berak sartu behar apaletan. Guk egin behar dugu lan hori, kodea irakurgailuan pasatu ondoren. Baina sarritan uzten dituzue apalategian, guri emon barik.

Bestelako malkoa etorri zaio oraingoan Lorea Gernikari.

– Gu ez molestatzearren, hartu zenuen lekuan utzi zenuen zuk zeuk. Lotsatu egin behar duzu? Gauza normala da oso, esan dizut. Lasai horregatik.

Orduan, milaka liburuzainen zama bizkar gainetik kendu izan baliote bezain tenplau, malkoa xukaturik, «Ez bulka!» esan dio Lorea Gernikak iletxori bat berdez tindatua daukan kargulant adeitsuari, «Ez bulka, neu naiz ibilki!», ahapetik, emeki, silaba bakoitza dastatuz, biktima mingarrienean sarraskituko lukeen kriminal ankerraren sadismoan. Gero, kargulanta zer esan ez dakiela baitauka durduzatua begiak larri eta kokotsa zintzilik, bera ez dela ate itzulkari bat jakinarazi dio. Horixe esan dio hitzez hitz eta, badaezpadan, errepikatu egin du ozen, muturrera.

– Ez naiz ate itzulkari bat! –durunda udal liburutegian.

Idaztea heriotzaren aurkako borroka dela deklamatu zuen idazle handiak. Oraindino ez du igarri zer esangura ezkutua eduki lezakeen esan horrek. Ez da idazlea eta ez daki zer den letralana. Baina gaur ez heriotzaren aurka baizik bizitzaren aurka egin duela borroka iruditu zaio Lorea Gernikari. «Bai, bizitzaren aurka egin ditut nik gaur joan-etorri guztiak!». Eta inguruan inor ez dabilkiola ikusita, eskuak ozengailu ipini ditu.

– Nik bizitzaren aurka egiten dut borroka! –oihukatu dio goiko kargulantari, ilgorrari.

Ideia ederrak lantzean behin baino ez direla etortzen ere esan zien izena ahantzi zaion idazle handiak irakurle txokoan. Halakoa baiteritza bere oihuari, etxera baino lehen buruaz beste egitea erabaki du Lorea Gernikak, ez ibaiko ur ilunetan, ezpabere gaztetako maitale dandy batek dastatzen irakatsi zion oporto kopaxka batean, ospakizun.

Usoak

Lardiberri baserrira ezkondu zen astean landatu zituzten hurritzetara hurreratu da Joxepa hotsik atera gabe. Lo antzean dago hantxe Lorea Gernika zabalen zabal. Txoko horretaz jabetzen da astean behin udazken honetan. Hego haizearen epelean, hurritzen azpian etzanda, *deusetaz* gogoetaka laketzen zaigu, izpirituzko nudismoan. Salbu eta Joxepa daukala inguruan, bere pentsamendua entzuten.

– Maitaleak ilunabarra ikustera etortzen dira mendira, gau horretan bertan, maitaldiaren beroenean hil behar dutela zin egiteko.

Hernaniko mugan ditugun lardiberritarrak ohartuak dira emakumearen ohitura horretaz. Senarrak beldurra dio, burutik egon behar du eta datorrela aspertu arte saldarik eskatzen ez duen artean. Joxepak ez du maite, gaztetan ezagutu zuela uste du, nolako harroaldiak ibiltzen zituen maripurtzil horrek: gona bildu gabe azaltzen zen bizikletan batek daki nondik igandeetako dantzaldira! Besteren terrenoan ez sartzeko aginduko dio, hurritzak Lardiberriko lurretan daude, eskrituretan ageri da.

– Ni berriz eguerdian amiltzera nator, egun berria beroaren beroenean besarkatuz indar hartzeko.

Begiak zabaltzeke ari zaio, ikaratu egin da Joxepa.

– Eta indar ematen dizu? –ahapetik.

– Astean bitan joaten naiz orain Hernanin daukagun parke botanikora eta haizatu egiten ditut usoak, gure moduko atsoek ematen dizkieten apurrak jateari uko egiten ikas dezaten. Indartzen nau, bai, indartzen nau.

Oiloetan pentsatu du baserriko etxekoandreak. Laster horretara iritsiko da bera ere, ezin izanen du baratzean makurtu.

– Baina atsoek ez dute ulertu nahi, Joxepa. Berdin azaltzen dira apurrak zabaltzen.

– Ez nuke oiloei jaten ematen bizi nahi! –irten zaio nahi ezik Joxepari garden, ozen, uzker txatxu.

Eskua luzatu eta ondoan etzateko keinua egin dio Lorea Gernikak burua mugitu gabe.

– Eguzkiak zoratzeraino berotuko gaitu laster, Joxepa.

Eta Joxepak ihes egin dio izututa, besteren usoak uxatzen ez ibiltzeko esatea hurrengo baterako utzita.

Erantzuna

Egun herritarrek ahotan hartzen dituzten hogei hizkuntzetarik batzuk ikasi, hankak errekan freskatu, kanpo bazkaria antolatu, baserriren bat zaharberritu... Horiek guztiak eta gehiago egiten ahal ditu Lorea Gernikak egunpasa batean hor, han, Antzuolan. Lehenik, bazterrak ikusi. Amarekin izeko jostunarenera etortzen zenean baino alaiagoa egin zaio herria. Karrika nagusiaren erdi aldean, arrosaz margoturiko paretatxoari erantsia «...ez dot moztuko bizarra!» irakurri du. Aldean du bizarraren marrazkia, hutsik, aurpegi barik. Atxikorra ematen du, kukumarro janzteko. Nabarmena ilearen baltza arrosaren gainean, ez da margotu zatarra. Ulertuko ote dute gaztetxoek ezeztapen fier horren esangura? Horixe etorri zaio burura Lorea Gernikari, gazteek ezagutzen ote orain Gabriel Aresti gaiztoaren poemak, entzuten ote Mikel Laboa zoroaren kantuak. Eta, oroz gain, kantatzen ote. Bizar baltzari beha geratu da, bere baitan amildua. Zuria izan behar zukeela honezkero, pentsatu du aurrena. Zenbat nahigabe, zenbat hasperen, zenbat etsimendu horixe kantari ibili zela aldaera guztietan? Euskara salbo,

Euskadi libre, ez dut moztuko, ez dut kenduko... Aldaerak aldaera, beti bizarra. Lizarra, izarra... Errimak hala eskatzen ote? Konortea galtzeko zorian egon da. Gero eta zurbilago Lorea Gernika Antzuolako kale nagusian paretari buruz. «Neuk ere kantatu izan dut ba hori...!». Ondoeza egin zaion galdetu dio zerbitzu sozialetako zinegotziak, eta elizako kanpaiek erantzun diote. Noizbait, Lorea Gernika ohartu da emakume gazte batek daukala besotik oratua.

– Barka egizu galdera... Uste duzu euskara salbaturikoan edo Euskadi inoiz libre baldin bada, bizarra moztu behar genukeela guk biok?

Begiz begi geratu zaio emakume gaztea. Ezpain ertzak luzatu ditu. Nongoa den, zer dabilen hemen, kurtidore izandakoen urteroko bazkarira etorri den. Besoa laga barik lagundu dio udaletxe aldera. Kontzejuko arkupean jesarrita, arnasa biriketaraino sartzeko gauza da barriro Lorea Gernika. Plazako ikurrina itzelari dago, baina «Ez didazu erantzun...» errespetubakoa jasan behar izan du zinegotziak.

Artista

Ezertaz damutzen ez delakoaren itxura eman ohi du agertzen, solasten eta egiten dituen ez orotan bai noizik behinean, eta horrenbestez hunki latzekotzat daukate axaletik ezagutzen dutenek. Lorea Gernika, izan-izanean, minbera dugu. Esaterako, ur beroari gainez eraginda baineran etzaten delarik egunkaria irakurtzeko –zuri-beltzekoa zenean matxuratu zitzaion telebista eta geroztik ez du konpondu, irratia ez du sobera maite–, zalantza egiten du elkarrizketak irakurri edo ez. Biziki interesatzen zaizkio idazleen eta musikarien eta politikarien iritziak, baina kazetariek «Berriro jaioko bazina» galdetzen dutenean –denei eta beti galdetzen baitiete hori kazetariek– «Hautu berdinak eginen nituzke» irakurrita hirurogeitaka urtez eskultura berdinak kokatzen jarraitzen duen artistaren baten edo inoiz dimitituko ez duen politikariren baten ahoan, atsekabea hazten zaio nonbait hor, minenean. Kazetaria izan nahi luke, «Berriro hilen bazina» galdetuko lieke denei eta beti, «Bizitzen ikasi beharko nuke» mailako erantzunak eskaini ahal izateko irakurleei, bainerakoak edo trenekoak izan.

Lorea Gernika, elkarrizketatzen dituzten artista, politikari eta idazleen adineko eta gehienetan gaindiko izanagatik, abiatu besterik ez da egin bizitzan. Esan lezake kasik egun oroz abiatzen dela bizitza berriren batean, bezperako hautuak errepikatzeko beldurrez. Faltsuak egiten zaizkio ezertaz damutzen ez direnak. On egina ere damutu izan zaio inoiz. Egia esanak ekarri diona, nahiago du gordean. Berriz jaiotzeko aukera eman eta laprastada berdinak egin? O, akordubako jendaila zoriontsua! O, jendaila jator ezin jasana!

Eta bainuontzitik jalgi den mamitasun berean azaldu zaigu Navaz y Vides karrikan, Tafalla zaharrean, egunkarian irakurri duen azken artistaren bila sukaldeko labanarik handiena eskuan. Zintzurra moztuko dio, bai. Edo hesteak aterako dizkio, fabrikako antxoei bezalaxe. Artistak, jakina, pozarren hartu du: lau ordu eduki du estudioan azaldu den bezala larru gorritan isilik eta geldirik bi berogailuren artean trementina usainak erdi zorabiatua, gorputz osoaren naturaleko erretratua amaitu dion arte.

«Hauxe da nik margotu nahi nuen oihala!».

«Ez joan Guggenheimera, Lorea, nolako iruzurrak!».

«Badakizu, perfekzioa ergelen mitoa da, artea ez da inoiz perfektua!».

Hiperrealismoa lantzen baitu, tanta gorri batzuk erantsi dizkio labanari. Neke latzagoaren emaitza izan da titulua sortzea, baina asmatu du. Bilbon laster egin behar duen erakusketako koadrorik preziatuena izanen da «Damurik ez».

Eldarnioa

– Bidaiari jaun-andreok, mukulduriko zangoak leuntzera irten dira komandantea eta kopilotua. Zuek ere irten zintezkete Kululu uhartearen sumenditik sortuko den eguzkia mirestera.

Denak irten dira. Zoragarria izan da hodei gainean ibili ahal izatea, hondartzan oinutsik baino zatiaz goxoagoa. Iluna urratzen hasia du, mendi haren barrutik jalgiko da laster eguzkia...

Hau eta arraioa!

Hegalontzia hodeitik behera doa musturrez aurrera itsasorantz!

Agentziaren ganora eskasak dauka errua, agindu ziguten konfiantza osokoa zela hodei hau, baina ez du erreaktorearen zama eutsi ahal izan. Komandanteak, kopilotuak, heganeskek... Eskifaia osoak egin du jauzi makina abandonatuaren atzetik, han doaz airean murgil hegazkina jasotzen itsasoan leher dadin baino lehen. Bakarrik geratu dira bidaiariak hodei gainean.

Edonola, programatu legez ageri da eguzkia. Izututa dagoz.

Ohartu diren orduko, haize leun baina egoskor batek eroanik, Honoluluko Nazioarteko Aireportuan lurreratu dira Balmaseda-Jakarta hegaldiko Airbus A457ko bidaiariak, denak onik. Zoragarria izan da lurreratzea, hodeia urtu egin da lur jotakoan, ez dute eskailerarik jaitsi behar izan, eta eskura dauzkate maletak metatxotan. Baina honolulutarrak ez zaizkie lorezko lepokoekin azaldu, atxilotu egin dituzte bidaiari guztiak. Ez dituztela libratuko eskifaia azaldu ezean. Bat-banaka galdekatu dituzte jo dezaten kukurruku nork kontratatu duen suntsitu egin den hodei hori.

– Neuk mehatxatu nuen komandantea azkazaletako limarekin, aska itzazue turista horiek denak –Lorea Gernikak dardaraz, hainbeste espero izandako aukera horietarik bat ikusirik, Prudentia eta Temperantia txakurraren salara igorriz.

Baina ez diote jaramonik egin.

Ohiko hasperena Lorea Gernikak hainbatgarrenez: zeinen zaila dagoen humanitatea salbatzea! Depresio sakon batek dauka geroztik erretiratua. Asteak Balmasedako ferian ikusi barik.

Pultsua

Emaztegaia etxean aurkeztu zuenean, erdaraz hasi zitzaizkion gurasoak eta senideak. Ikusgarria izan zen. Haiek ahal zuten gaztelaniarik txatxuena eginez eta Lorea Gernika euskara klasikoan erantzuten lasai –gero jakin zuen Inazio Ansolak euskara eder hura lapurtera zela, lapurtera arrunta, Elgoibarko euskara leunaren antzeko bat–, bostekoa luzatuz eta tinko emanez, bera aitzinatuz musu ematera... Nafarra zenetz galdetu zion Inazioren aitak, «Nafarra al zara?», semeak adar karlistaren batean txertatu behar ote zuen kezkaturik. Harrotzekoa zen, eta harro zegoen Inazio. Arreba batek, gaiztoz, pianoaren estalkia zabaldu eta aulkitxoa eskaini zion Lorea Gernikari. «Ez dakit pianoa jotzen, fabrikako umea naiz!» aitortu zuen kopeta goratuz. Neska hark zer edo zer zekarren, eztitasunetik garratzera zekien izate berezia. Elkarri behatu zioten Inazioren senideek maltzur, garaile, epaikari, baina etxeko jauna ere halakoa zen, ezkutatu egin nahi zuten lohitasuna zeukan aitak. «Ni torneruen pintxe hasi nintzen!», ikastea, saiatzea eta izerditzea omen ziren bere arrakastaren oinarriak.

Ama azaldu zen orduan, eta pasatzeko jangelara, zer egiten zuten han zutik, hura ere euskaraz, neska onartzen zuelako seinale hartu zuen Inaziok. Mahaian, xokolata zerbitzatu zien neskameak. Atzamar txikerra nabarmendu gabe hartu zuen kikara Lorea Gernikak. Dastatu zuelarik, «Maite duzu xokolata?» galdetu zion bere amaginarreba izan behar zuenari. «Bai, bai, asko!», emakumearen erantzuna, urduri, duda eginez huraxe ote zen erantzun egokiena. «Joanen gira elgarrekilan Baionarat, munduko xokolatik onena hartuko dugu Cazenave baitan!». Berbatu ezinik geratu ziren bere koinatagaiak –hartuko dugu hark «hartuko dugu guk biok» esan nahi zuen garbi, gerra deklarazioa zen–, eta Inaziok, tinkamendua lasaitzearren eta aitak estimatuko zuelakoan, Fundiciones Ansolaren etorkizunerako garrantzitxoa eduki zezakeen datua eman zuen «Loreak primeran egiten du frantsesez!» argituz. Hurrengo egunean, lantegira zihoazela «Ez haut ikusten, Inazio, ez haut ikusten. Enbria duk hire neska hori!» esan zion txatarrero hasi eta Perkins motorren blokeak egitera iritsia zen Federiko Ansolak bere maiorazkoari.

Ezkondu zirenetik urte erdira gabe, pijaman sartua hasi zen oheratzen gauero Inazio Ansola, Lorea Gerni-

karen aurreneko senarra. Bainugelan aldatzen zen. Erantzitako arropa besoan zekarrela azaltzen zen logelako atean, ohemahaiko argi apalen argira. Iriartek, Doneztebeko ebanista ospetsuak gaztainondo zurez eginiko valetean kokatzen zuen arropa Inaziok tolesturak zainduz, emazteak, mantapean izarrak bezain biluzik eta urrun, begia aldiko liburuan zeukala.

– Bihotz ondoan beti! –halako batez, atzamarra paparreko brodatuan.

L eta G letrak pijametan, hari urdinez. Mariaren Alaben estandarteetan ageri zen anagrama oroitarazi zion brodatuak, onik ez.

– Lastima, Inazio! Pianoan bezala dakit nik brodatzen.

Saiatu zen pijamaren zirrituak erotikotasun bihurtzen, baina Elgoibarko ansolatarren premuak brastako bitan kentzen zituen jaka-prakak jolasean hasten ziren orduko.

Berari lekurik egiteke aita zuzendaritza bileraren batean hilen zela igarri zuenetik, gentleman bat izatera eman zituen Inazio Ansolak ekinik gogorrenak. Kontzeptu bat zeukan orain bere buruaz, eta ez zen laketzekoa. Frantsesa ikasten hasi zen Donostiako akademia batean. Kantu klaseak ere hartu zituen, emaztea-

rekin duoak egin ahal izateko. Citroen DS berdea hiriburuetarako utzi eta emazteari kendutako bizikletan ikusi genuen traje, krabata eta kapelu. Ez zuen erretzen, baina Elgoibarko atelierrek ekoizten zituzten torlojurik zehatzenak baino produktu guztizkoagoak egin zitzaizkion pipak. Beti zeukan Dunhillen bat edo Savinelliren bat bulegoko fakturen gainean, etxean beirazko atedun altzarietan antolatu bildumatik ekarriak.

– Baserriko amamak lez!

Ke gozo baten erdian, Ashton erosi berria ezpainetan Lorea, Lorea Gernika, bere emaztea, Inazio Ansolaren señora, pipa pipatzen.

– Baina zelan...? Nork eman dizu baimena...!

Inazio Ansolak eskua luzatu zuen pipa kentzearren, baina emazteak atzamar batetik oratu zion. Bi urte eta erdi iraun zuen pultsuka saio hark. Enbria zen bere neska hura.

Katixima

– Dena daki, ez du ikasten ahal. Haur bat ikusi eta bizkarrak zimurtu bertzerik ez du eginen. Aspaldiko unadura makurren batek dauka azken piruraino akitua. Eta egia erranen dizut, Eztitxu, hobe inoiz azaltzen ez bada.

Begiak zuri dago Lorea Gernikaren bilobatxoa.

– Denboraren habea da, ez du presarik, ez du lagunik. Hain ohikoa da hangoikoa, noizbait hasiko dela zor diguna kalkulatzen erraten digu beti.

Afaritara etorri zaio seme gazteena emaztearekin eta haurrarekin. Arizkunen bertan geratuko da lotan Eztitxu, amatxiren gomendio: bihar larunbata, gurasoek besta behar. Eta Lorea Gernikak probestu egiten.

– Zu ikusi eta ez luke bertzerik eginen, bizkarra jaso. Ederki gaude gu biok hementxe goi hartarik beheititzen ez den artean.

Bilobatxoak ez dio halako deusik inoiz erran, baina gurasoek katiximara ibiltzen dutelako susmoa dauka.

– Hangoiko hori dagoela hantxe, bai, goiko trapeziotik jauzi egiteko beldurrez.

– Trapezioa dauka?

Baietz erran dio Lorea Gernikak, hangoikoaren aurkako proselitismoan itsuturik.

– Baina hangoikoa ez da trapezio saioan hasiko hemen dauzkan morroiek segurtasuneko sarea lotzen finitzen ez duten bitartean.

Haurrak ezin hobekiago barneratu du aitaren amaren parabola:

– Bihar pailazoak ikustera joanen gara, ezta, amatxi?

– Pailazoak? Negar egiteko? Ez, ez, ez! –emakumearen izua.

Baina Arizkungo Hartza bezain otzan eramanen du Eztitxuk amatxi eskutik Elizondon jaima erraldoia eraikia daukan Cincinnati Circusera.

– Pailazoak barre egiteko dira!

Hala izanen da araiz: Eztitxuk eta gainerako guztiek algara eginen diote trapeziotik ez baina aulkitik erorita min hartuko duen pailazoari. Lorea Gernikarenak entzunda hangoikoa irri-karkaraka lehertzen den era bereko ankerkerian.

Hodeien azpiko

Eulberaren barruan eta aterki zabalaren azpian Lorea Gernika ideiabako pentsamenduan erdi tuntunduta, baratz, karrikan behera. Ikusi ez duen norbait zapaldu du hanka betean, «Otx!» entzun du behintzat espaloian.

– Barka ezazu! Min eman dizut?

Alfonbra dirudi, euriaren zamapean albaindua. Edo hankapean bizitzeko sortu ez zen alfonbra, baldin halakorik posible bada.

– Min emon didazu, bai!

Errukitu egin du Lorea Gernika. Makurtu, zegoen potxongotik jaso eta etxera eroan du dena delakoa, galtzarbean. Sukaldeko zolan hedatu du. Zauri aztarnarik ez. Eskegi egin du idortzearren: Daliren erloju likatsu horietarik bat. Apurka, sukaldeko epelean, masa bustia xukatzen hasi da, lika galdu eta biribiltasuna hartu du.

– Zuk... Zuk ez daukazu haririk be alfonbrarena! Erlojua ote zara? –harrituta Lorea Gernikak.

– Bai, behartsuena: ni eguzkia naiz! –biribilaren erantzuna, Van Goghek margotua iduri.

– Eguzkia hankapean! Nola liteke? Zer egiten zenuen hor Zerkaostetan etzanda?

– Euri jasa batek harrapatu nau! –memeloak.

Baina ezo zena bero da orain. Lorea Gernikak etxeko leiho guztiak ireki ditu. Labea itzungi behar izan du. Geroago berogailuak. Minutuan baino minutuan handiagoa etxearen kiskali beharra. Sutan da –ulergarria– Lorea Gernika.

– Alde hemendik!

Eta eguzkiak alde egin gura ez.

– Beldur naiz!

Beldur? Ontziak labetik ateratzeko eskularruak jantzi, gerritik heldu, pintzak askatu...

– Gernikako Lorea, mesedez, erruki nitaz! Euriak busti egingo nau berriz, eta nik ezin dut bustita bizi!

Otoika? Izerdi lapatsetan da, trikimainarik ez Lorea Gernikari oraintxe.

– Zuk mundua berotu behar duzu, ez nire etxea!

Eta leihoa zabaldurik, airez aire jaurti du alfer ez bestea Arrasateko zeru estuan gora. «Ikasiko ote du txaldan horrek, hodeien gainetik bizitzen?», betiko kezka Lorea Gernikak leihoan, gizaki kooperatiboen ibilia ikusita. Diskurtso bako berbak, ideiarik ez.

Katea

Enplegatuak ez du ulertzen zer ari den atso hau hemen, eskua goraturik sinagailua inarrosten, ez baitu ikusten katerik, plastikozko lokarri kiribildua baino.

– Zer egiten du kate honek hemen?

Zeinen zaila den Einsteinen sagarraren antzera jausten diren gauzak jausi egiten direla esplikatzea inori, endemas atso zahar bati!

– Zergatik kateatzen duzue boligrafoa?

– Barkatu, ez da boligrafoa...

– Badakit ez dela boligrafoa. Zergatik iraintzen gaituzue horrela?

Zeinen zaila den bankuko enplegatuaren lana, batez ere ilaran daudenak amorrarazten ari den atso bat adeitasunez atenditu behar denean.

– Uste duzuelako boligrafoak lapurtzen ditugula, ezta?

– Esan dizut ez dela boligrafoa...

– Paperean sinatzen genuenean, kate batekin zeneuzkaten lotuak Bic merkeenak!

– Katea oso praktikoa da, boligrafoa erori egin liteke bestela, eta...

Inori ez zaio ezer axola gaur egun, ezta Errenterian ere. Horixe pentsatu du Lorea Gernikak ilaran zain daudenak zalapartaka hasi zaizkiolarik txanda hurrengoari uzteko. Munduan dauden eta diren lapurrik handienek katean lotua daukate ziri ziztrin bat, ebats ez dezagun.

– Guau! Guau! –atzean dituenengana jiratuta.

Isilik geratu dira denak, zur, zur. Eta bankutik irtenda zaunka alaiak eginez jarraitu du Biteri kalean barrena doan jendeari oihuka, alegia, «Ikas dezagun lapurtzen!» zakurren hizkeran.

– Grrrrrrrr!

Yorkshire terrier bat, jabearen katetik tiraka Lorea Gernikari triskatukozaitut egiten.

– Zu ere katean?

Zeharbideko kritikatzat hartuta, jabeak zilar itxurako katetik tira eta besotxokora jaso du, zakurtxoaren kikia eusten duen txibista lasaitua estutuz.

– Xarko, ixo! Lasai, Lorea, ez du koskarik egiten.

Eta Lorea Gernika okinaren amarekin geratu da hizketan Goizuetako izeba zaharrak irakatsi zion en-

plasto berezi baten errezeta esplikatzen, Xarkok inoiz ausikirik eginen balu baliagarria.

Eskerturik, lurrean utzi du Xarko ostera, eta txakurtxoak bankura eraman du, katea tenk, okinaren ama. Lorea Gernika beha geratu zaio errezeta ongi eman ote dion kezkaturik.

Gaü xuriz

Kexamendu urragarri bat. Haizea ekialdetik. Ekialdetik, bai. Ohea utzi eta egongelako arasaraino etorri da Lorea Gernika haztamuka. Kandela bat hartu, hantxe daukan Irulegiko arno botila hutsaren ahoan sartu, pospolo kutxa zabaldu, ziritxoaren burua paperlatzean igurtzi, garra txortenari atxiki... Erredizeen itzalak kulunkan. Eta berea aldaroka ikusiz, zorabio batean Lorea Gernika. O, Électricité de France, zure berrogeita hemezortzi jenitore nuklearrek ez dute berdintzen ahal su honen indarra! Haizearen intziriek sakonagotzen duten ilunpean, gar ñimiñoak dizkio begi biak hurrupatzen. Hanitxetan egin ohi du, betazalik zirkindu gabe egoten da hari so, bere baitan bildurik medium lanak eskatzen duen atzartasunean: «Xiberoko azti zühür gaztia, zelüan zer ikusi düzü hainbeste egün gorriz, hainbeste gaü xuriz?». Zakur adausiren bat urrun. «Otoi, esadazü egia, Xiberoko azti zühür gaztia!». Santurtziko gazte hori Mündüan malerusik kantari Atharratzeko leihoren batean. Agosti Xaho amorragarriaren hatsik ez! Harena ez baina Markus filosofoaren burua ageri zaio gandu batean, «Zer zabil-

tza, Gernika, egia beritablearen bila?» adarra jotzen. Espirituzale zintzoen arau, kandela osorik erre arte saiatu behar luke Lorea Gernikak Xaho urrunduari deika, baina ezin du: Électricité de France ahalgabeak hotzik mantentzen dion frigorifikoa behar lukeena baino lehen zabaldu ohi du, eta haren argitxo artifizialak ezean, gasna edo zozizon puska ederren batek hausten du meditazione giroa. Metafisikan ere, materialista samarra dugu Lorea Gernika. Baina Atharratzen bertan bildu ereinotz adaxka sorta bat utziko dio hilerrian azti zühür gaztiari Baionara doan hurrengoan. Kandelarik piztu gabe geratuko zaio buruz buru marmol zuri bikainari, Euskal Herriko zelüaz gogoetatua. Zotin lirikoak egin ohi ditu hantxe aldikal Lorea Gernikak. Ezagutu izan balu, apika...! Xahok bera, prefosta.

Azpikoa

Milano, Miami, Manila, Mexiko eta Madrilgo puntista txalotuenetarik bat izan zen Anton Subiza lodosarra. Kantxak utzirik, Espainiako Mediterraneo aldean hedatzen hasia zen JayAlay hotel katea erosi zuen, bateko eta besteko hiriburuetan ikusi zituen aitzinamenduak ezarriz: bilera gelak, faxak, mekanografia eta idazkaritza zerbitzuak, gaztelaniatik ingeleserako interprete diplomatuak. Kalkulatzailea zen frontoian, eta Pitagoras bat aferetan. Bestelakoetan, tangoa, baltsa, bazekien heltzen. Ederki ematen zion smokinak. Eta ikasia zen ausardia behar dela tantoa egiteko.

– Ez dugu elkar ezagutzen, barka nazazu: zure begitartea ikusita, plan erromantiko bat behar duzula uste dut.

– Ba ote? –Lorea Gernikak, ezkerreko bekaina jasoz.

– Petanka partida bat proposatzen dizut lorategian, pista bat daukate hor. Goazen ilundu aitzin! Mila ehuni!

Eta Biarritz Musical erakundearen gala utzirik, petankan aritu ziren egun hartan, tenisean hurrengoan, ibilaldi bat ere egin zuten tirripitan Basusarrira, lizarren gerizpean bazkaldu zuten... Gatobazkaren lehen zatia eskaini zion Anton Subizak neska eder hari, eztei zeremonia moduko bat, ahora hurbilduz. Ostra hurrupatu zuenekoaz gomutatu zen Lorea Gernika.

– Behin perla bat irentsi nuen.

– Perla ostra barruan, jatetxean? –algara Anton Subizak.

– Bai... Zergatik egiten duzu barre?

– Maitagarria zara, Lorea! Ez dakizu hori amarru zaharra dela?

Bazekien perla hura Bixente Garaten galanteria izan zela, begi bistakoa zen, baina ez zion onik egin arrunta zela jakiteak, umetua sentitu zen, behejoa, malkoak heldu zion eta zekarren gozo guztia galdu zuen egunak.

– Ez da zure errua izan, Anton. Barka nazazu.

Pijama bat azaldu zen bigarren senar honek Bartzelonako Sant Jaume plazan zabaldu berria zen New England arropa dendatik opari ekarri zion kutxatxoa zabaldutakoan.

– Zetazkoa da.

Lorea Gernika begiz begi geratu zitzaion, zorrotz, bekaina jasorik ez baina belztuta. Pijama zetazkoa zen, baina gizonezkoarenak jaka-prakak.

– Egunez ibiltzeko, etxean, lasai. Politagoa da zure bata horiek baino. Eta, badakizu? Fraidearen sotanaren azpian moja bat dagoela deskubritzea bezalakoa izanen da –alegia deus ez, umoretsu, gala aspergarri batean luzitu behar balu bezala.

Erredura bat bihotzean, «izanen da» likits hura Lorea Gernikari. Errepikatzeko berriz. Eta hitzez hitz errepikatu zuen azken esaldia Anton Subizak, begia kliskatuz, bere buruaren parodia: azpian, moja, deskubritzea.

– Eta mojaren azpian zerk azaldu behar luke?

– Ez, Lorea, oker zoaz hortik...

Atzamar batetik oratuta hitza atera arte estutzea otu zitzaion, esan zezala mojaren azpian azaldu behar zuenaren izena... Ez zuen horrelakorik egin, etsia hartu zuen.

– Badakizu zer etortzen zaidan burura niri gizonezko bat pijaman aurrez aurre daukadanean?

Anton Subizak ez zuen inoiz jakin ahal izan zer pentsatzen zuen bere emazteak pijama janzten zuten gizonezkoez. Eta egia esatera, berak ez zuen inoiz pi-

jamarik jantzi, ez oherako, ez etxerako, ez ezkondu aitzin, ez ezkondurik, ez banandu osteko.

Lorea Gernikak anuntzio zeukan haurdun zegoela, baina esan, ez zion inoiz esan.

Malko bat

Herri honek, etxe honek ematen ahal ziona eman dio, partitzeko tenorea du Lorea Gernikak, ez da bete arteko maizterra izaten. Nonbaitetik hona eta hemendik auskalora lekutzeak ez dio, usaia duenez, bestelako lanik ekarri. Baina eten egin du ezinbestekoen bilketa, hamarretakoa eskatu dio gorputzak. Sukaldera-ko urratsean Bixente Garat tenorraren behakoa ikusi ustetu du eraman beharreko disken artean. Eskuratu du multzotik, ez da tronpatu: *Bixente Garat LIEDER*. Turnadiskan ipiniko du, inoizko menturak oroituz eginen du mahaiarekikoa. Paper batzuk erori dira diska zorrotik ateratzearekin. Hementxe gordeko zituen noizbait. Zer ote eta... Galduak zeuzkalakoan zegoen.

Lorea Gernika

Côte Basque

Andere agurgarria:

Dakikezun bezala, Bixente Garat tenor handia hil zaigu. Hil zaigula diotsut, egunotan doluz diren Frantzia eta Nafarroako eta oro har munduko melomano guztiena ez ezik, Garat jaunarekin harremanik eduki

zuten guztien begikoa ere bazelako, hain zen eztia, hain genuen jendekina eta eskuzabala.

Bere legezko ordezkaria naizen aldetik, jakinarazten dizut, Bixente Garat jaunak testamentuan agindutakoa betez, zuretzat utzi duela Arrangoitzeko Bixentenea izeneko etxea bere lur eremuarekin. Jabetza transmisioak egiteko, zure zerbitzura naukazu goian ageri den helbidean.

Halaberean igortzen dizut, andere agurgarria, bere testamentuaren lehen klausulan agintzen duena: zorro lakratu bat, berak niri gordetzeko emana orain urte batzuk, hildakoan zuri helarazteko.

Ondikotz, esan genezake Bixente Garatek bazekiela gazterik galduko genuela.

Har itzazu, anderea, ene sentimenik delikatuenak oren beltz honetan.

Zeinen guztizkoa tenorraren sentimendua *Una furtiva lacrima* kantari! Lorea Gernikaren bihotz pilpirek bat egin dute Bixenteren hasperenekin... Caruso, Lanza edo Pavarottirenekin eginen luketen bezala.

~~Gernikari, Parisetik~~

~~Loreari, bihotzetik!~~

Bihotzeko Lorea!

Atzo heldu naiz Parisera. Doietarik egin du ez bainaiz bide bazterreko zuhaitzen baten kuntre zirtzilatu. Zu zintudan gogoan, eta hirutan makurtu naiz bidez. Ez diot ene buruari barkatzen ahal herenegungoa. Zure fidantzia galdu dudala segur dakit. Ni... Txalotua izatearen bortxaz nauzu horrela bilakatua. Nik xarmatu egin nahi zintudan. Ez, ez, ez diot ene buruari nehoiz barkaturen. Kontzertu ondoan miresle batengana joan nintzen, zilargina da. Gero, jatetxean sartu ginelarik, sukaldera jaitsi nintzen... Ahalke naiz! Zer balio dute ene gurguria paregabekoek? Opari bat zen zu ikustea han, eni so eta eni entzuten eta enegana etorki lili sortaren erdian, eta nik ordaina egin nahi izan nizun. Sukaldeko xefari agindu nion zilarginenetik ekarri perla eder hura ostra handienean ezkutatzeko. Xantza onaren seinale. Etorkizun posible bat. Gezurretan ari nintzen! Ezin gehiago uros ikusiko ninduzun perla ahotik ateratzen zenuelarik... Eta eztarrian beheiti joan zitzaizun!

Idurikatzen dut jasanarazi nizuna. O, nola kolpatu dudan ene kontzientzia!

Arestian, hoteleko mutilak zu egon aulkipean atzeman duena ekarri dautalarik, lazgarriki naiz espantatu

zapi zuria zabaldutakoan! Etorkizun uros baten seinale izan behar zuen perla... «To, hemen duk hire gezurra!» erranez daukat orai mahai gainean! Ni xokolata dastatzen eta zu isilik, zuhaurren esku-azkazaletara beha, nik eskaini perla biltzearren zikindu behar izan zenituenak... O, ez! Ez zenituen zikindu perla bat biltzearren! Eni eskerrak emateko zenituen eskuak zikindu! Eta hortxe paratu zenuen garbitua, delikatuki, nonbaitik ere eroria bezala, otoaren barnean eni distira egiteko, ondoan zinela jakin nezan!

Kurritu dut mundu guztia eta ez dut zure antzekorik ezagutu.

Nahi nuke bihotzetiko hauek zure bihotzari mintzatzea eta elgarren alderako estimu osoan geratuko bagina heldu den udari buruz.

Pot bana zure eskuei,

Bixente.

Markus filosofoak Hirugarren Adinekoentzako Ikasturtean pazientzia eredugarriz irakatsitakoa ahantzian ez badauka, gorputza berea den bezainbat dela bera gorputzarena jakin behar luke Lorea Gernikak: gosean, nagian, nekean, izerdian, oinazean, kolore baten edo leku baten hastioan errebelatzen zaio espi-

ritua. Bat eginak ditu gogoa eta haragia –Descartes!–, ibilia du arrazoimen. Bizia egunero higatzen zaiola sumatzen du, eta bizi egin behar duela ari zaigu adierazten orain deboilamendu honetan, belaunek erabaki diote gogoari.

Mutxikina

«Atean jo dute, hemen dira...!».

Gizon bat karrikan barrena. Jakarik ez, maletinik ez, kapelurik ez. Arrunta. Eta hala ere, gizon bat karrikan barrena... sagarra jaten! Hortz ederrak, ausiki ausartak. Lurrera jaurtiko ote zuen zuztarra? Bulegotegi erraldoi batean sartu zen sagar puska eskuan. Lurrera jaurti izan balu, Lorea Gernikak murgil eginen zukeen inork zapaldu aitzin salbatzeko.

Hitzorduren bat edo eskatzera sartua itxuraz, mutxikina eskuan zuela jalgi zen gizona berehala. Orain-dik kendu gabe dauden zaborrontzi zuri horietarik batean utzi zuen erortzen golden hondarra. Aterpebako bat bezain ozarki hurbildu zen Lorea Gernika. Hantxe sagarraren bihotz txipia, paper eta plastiko metatxo baten gailurrean.

«Gizarte honen irtenbidea zaborretan dago!».

Maitasunez hartu zuen, maitasunez, eta ikusi zutenek horixe espero arren, ez zuen ahora eraman. Zapi batean bildu zuen, amak haurra bezala.

«Non bilatu behar dugu iraupena, zaborrik ez badago?».

Antzututako sagarrak saltzen dira dendetan, baina nork daki, zergatik ez? Naturak izaten ditu halako zoroaldi batzuk, frogatua dauka Lorea Gernikak berak. Egutera ederreko parke zahar batean landatu zuen esperantzatxo hura, gizartearen segurtasuna bermatzen duten kamerek betikoturiko ekintzan.

«Atean jo dute berriro... Bai, neure atea da, hemen dira horiek...!».

Otamotzak

Santa Luzia ospatzen duen herri honetako San Gregorio kalean gora ikusi du gizajoa zamapean erdi zabuka, eta laguntzea nahi duen galdetu dio.

– Ohitua nago, eskerrik asko.

– Txatarra?

Zakua lurrean utzi eta zabaldu egin dio magrebtar gazteak. Zer ikusi duen Lorea Gernikak orduan!

– Baina...! Nondik...?

– Ez dakizu, Lorea Gernika, horrelako zenbat biltzen ditudan egunero zabor kontainerretarik!

Erruz botatzen omen du jendeak burua. Horrelaxe, kendu eta bota.

– Ez da posible! Erori egingo zaie!

– Eroritakoa jaso egiten da.

– Ezin dizut sinetsi!

– Ez zara konturatu zenbat jende dabilen lepo hutsik?

Larunbatetan frontoi ondoan jartzen da, Zelai Arizti parkean, astean barrena bildutako buruak saltzen. Lehen zeukatenarekin antzik gutxikoena erosi eta etxera eramaten dute batzuek, zer pentsatua emanen

dien edo ez arduratu gabe. Baina gehienek denboratxoa ematen dute buruak probatu eta probatu, zein ote datorkien egokien, zein den jantziena, zein arinena.

– Bakar batzuk edozein egunetan datozkit larri. Eskua zakuan sartu eta iletik tiraka ateratzen duten aurreneko burua hartzen dute. Berea zakuan bota, berria lepo gainean nola edo hala ipini eta alde egiten dute dantza pausoak eginez. Badauzkat burua ia egunero aldatzen dutenak, sobra ere alergia ematen diete pentsamendu batzuek.

– Hara! Ba al dakizu zein diren pentsamendu horiek?

– Anima zaitez, Lorea Gernika. Merke dauzkat. Dirurik ez baduzu, hartuko dizut zeurea trukean. Igartzen zaizu pentsamendu ederrez betea daukazula.

Pentsamenduz betea, bai.... Pozik aldatuko luke burua, ideiarik sortzeko lekurik gabe daukate Lorea Gernika koitaduari behin eta berriz gainez eragiten dioten gogoan ibili beharreko burutazio egoskor horiek.

– Zu gaztea zara eta ez dakizu zer den jakinaren gainean bizi beharra.

Hainbeste urratu josteko eta haria orratzean pasatuko dionik ez, horrelakoak.

Ulertzen ditu otamotzak, bai.

Andrakila

Bat hasi bestea jelostu, gurabako erronka sortu da Laida hondartzan, biosferaren leku xarmagarri honetan dauzkagu orain burutik buztaneraino osaturik lehenago erpe eta letagin etenak baino ez zirenak: krokodiloak, lehoiak, olagarroak, gazteluak, baleak, dortokak. Harro daude egile guztiak, nekez baina Lorea Gernika dagoen beste. Hark egindako irudia zabarra da enparadukoen aldean, arrunta formaz eta eskasa fantasiaz. Bola bat burutzat, zulo bi eta barrearen okerra. Meta bat enbortzat, hiru zulotxo berokiaren botoi. Ume guztiak eta telebista guztiak piztien artean dabiltza. Edozertara be harro dago Lorea Gernika, inor sentitu da. Ez du buruz ikasitakoa egiten jardun, ez du inoren edo ezeren klona egin behar izan. Eskatu gabe akordura etorri zaion umetako pozik umeena berritu du baldres, eta hondarra eskuetan, alaitasun primitibo horixe bizi izan du, sortzailearena. Mundakako Olatuak birrindu behar izan gabe deseginen da, panpinak ez du ikusgarri irauteko asmorik ageri. Zer gara ba, dio Lorea Gernikak bere baitan, errekan behera amilduko garen elurra baizik? Eta halanda be, hemengo

irudi guztien artean, hauxe da barre egiten duen bakarra! Horrelako gogo jardunetan zegoen hondar beroan jesarrita eginiko lanari buruz, noiz ere hurreratu zaion neskatila bat.

– Titiak ahaztu zaizkizu!

Zaflada bat eman baliote Lorea Gernika ez zen joago itzarriko inozotik. Zergatik ziren beti gizontxoak nire haurtzaroko elurrezko panpinak? Zer ginen gu? Zer gara oraindik?

– Arrazoia duzu, Mirentxu!

Altxatu denerako, neskatoak andrakila bihurtua dauka artean panpina zena: ugatzak astun eta titiak harro. Berokiaren goiko botoi biak ezabatu eta zilborra agerian. Willendorffeko Venusa. Azpian, triangelu bat marraztu dio hankarte.

– Ez naiz Mirentxu, Jennifer naiz.

– Polita izena, Hieniper!

– Bai, eta neu be polita naiz, Jennifer Lawrence lez.

Orbela gurpiletan

Sarreratik bertatik ikusi du aspaldi ezagutu zuen emakume interesgarri hura, baina jaun batzuekin ari denez eleketan, aldizkariak ikuskatzen geratu da dendatxoan harengana hurreratu gabe. Horretan ari dela ukitu dute bizkarrean, «Lorea Gernika, treina hartzera zu ere?». Amaia Ezpeldoi hura eta bera, bai. Pariserat doaz biak. Hego haize harroa dabilela komentatu du detektibeak. «Neguan eta hego haizea!», Lorea Gernikak. Iazko neguan abiadura handiko lokomotora geldiarazi omen zuten orbelek, detektibeak esan dionez. Centre Pompidou ezagunean zeukan garrantzizko hitzordua huts egin zuen, artista finlandiar baten hiru margolanen ebasketa argitzen laguntzeko eskatu zioten Quai des Orfèvresko ikerlariek. Ez dio interes berezirik sortu Lorea Gernikari artelan trafikoan egon litekeen Basque Connection delakoak, ez ditu artistak sobera maite, eta margolariak batere ez. «Orbelek lokomotora geldiarazi?». Treneko gurpiletan traba eginik. «Orbela ez da deus, baina metatzen bada...!». Azaldu da bigarren belaunaldiko Alstom harroa hamalau bagoiko buztana garraio Baionako geltokira. Bagoi

desberdinetan joan beharko dute, Montparnassen ikusiko berriz elkar. Bidaian, orbelak eta gurpilak izan ditu ametsetako lagun Lorea Gernikak lo kuluxketan. Baionan esana betez, geltokitik jalgitakoan Tour Montparnasseko sarreran dauka esperoan Amaia Ezpeldoi, pipako belarra papertxo batean biltzen. Bidaia trankil egin duen edo bagoian Hego Euskal Herriko erdaldun kalakariak egokitu zaizkion galdetu gabe, «Amaia, emakumeok elkartuko bagina...» tupustean Lorea Gernikak. Irri egin du detektibeak, «Atsoak elkartuko bagina, otsoak geldiaraziko genituzke!». Adiskidantza ezin beroagoan hartu dute kafe txar bana panini txarragoak saltzen dituzten okindegi kate bateko kafetegian zutik. «Alta bada...» eten du Lorea Gernikaren jarduna Ezpeldoi andereak, «Ez duzu uste atsoen artean ere badela otsorik franko?». Begietara so, tinko, ironia dariola. Ez, Amaia Ezpeldoik ez du orbelik utziko azpia miatu gabe. Nolako xantza, horrelako lagun zorrotzak ukaitea! Eta nolako estura!

Pizzaren proba

Hamahiru urte, helduaren berbeta eta umore beldurrezkoa. Gurasoek nazkatua daukate, lau ikastarotan dabil eskolatik harat: txalaparta, trikitixa, bertsolaritza eta euskal kulturaren ondare intangiblea. Lantzean behin piper egiten du eta amamarenean azaltzen da, gaur bezala. Pozarren hartzen du Lorea Gernikak, jakina, neskatoak beldur apur bat ematen dion arren. Ultzegin karrikan zabaldu duten pizzeria barrira eroan du ilunkaran, han, leku publikoan, errazago izanen direlako Lorea eta Uhaina, ez amama-bilobak. Modan dago gainera lekua, Oñatira datoz orain bergararrak jaten, egizu kontu. Harro sartu da Lorea Gernika lagun gaztearekin.

– Begira, Uhaina! Zelako edertasuna pizza bat mahaiaren erdian!

Lorea Gernikak ez du inoiz gose antzik izaten, Lorea Gernikak gosea bera izaten du, estronkau arte irentsiko luke sinplezia honetarik, gozamena da zatia eskuan hartuta hagin atxikorrak erretzen dituela jatea! Hirugarren senarra izan zena amorrarazten

zuen estilo berean miaztu ditu atzamarrak, koitadua aurrez aurre daukala begitanduz.

– Beste apurtxo bat, Uhaina?

Fruitu gorriko hurrupaki erraldoia eskatu du neskatoak.

– Ezagutu behar dut nik hori! Beste bat niretzat!

– Amama, postreak eta geroko infusatuak neuk ordainduko ditut, zuk pizza ordaindu.

– Ez Uhaina, ez, zuk dirua aurreztu behar duzu!

– Dirua, zertarako behar dut nik dirua?

– Ba... pizza jan ahal izateko.

– Zer dinostazu, amama? Dirua lupean sartuta ez da garirik haziko.

– Hau poza emoten didazuna, Uhaina! Ni be ekologista naiz, planeta salbatu behar dugu! Pizza hau lako elikadura jatorraren alde egin behar dugu! Eta errekara zaliak eta xardeak, nahikoa dugu katiluekin eta atzamarrekin! Badakizu? Nik behin sagarraren mutxikina landatu nuen parke publiko batean!

Laranja eta jengibrezko infusatua eskatu du Uhainak.

– Beste bat niretzat! Arraioa, Uhaina, sarriago etorri behar dugu hona!

– Amama, zergatik ez diogu elkarri noka egiten?

– Ados, Uhaina, noka egitea andrazkoon ezaugarri nagusia dugu! Baina zure gurasoen aurrean ez, e?

– Konforme. Hasi zeu, Loretxu.

– Aholku bat emon behar dinat, Uhaina. Badakin eguzki zuriak ostondo baltza dakarrela. Hik mutil bat nobiotarako hartu baino lehen, probatu egin behar dun.

– Probatzen ari naun pare bat.

Zelan jarraitu ez dakiela geratu da Lorea Gernika neskatoaren patxadak hormatuta. Listua irentsi eta eztul batzuk egin behar izan ditu hariari ostera oratzeko.

– Proba gogorra ipini behar dion gustatuta daukanan mutilari. Ez dun kontu arina gero! Pizzeria honetara edo gura dunanera gonbidatzea dun egin beharreko behinena, nik halan egin ninan heure aitita litzatekeenarekin. Eta pizza ekartzen dutenean, zatitzen hasi barik, atzamarra gazta-tomatetan sartu, ahora eroan eta miaztu egin behar dun soinua atereaz. Horrelan ikusiko dun maite hauen edo ez.

Uhaina muker geratu da, Lorea Gernika ez ote zaion ari tronpatik jotzen.

– Amama, hik badakin zer behar den pizza bat egiteko?

– Noski! Tomatea, gazta, txanpinoiak...

– Ez amama, entzun. Pizza bat egiteko behar ditun sugina, labea eta irina.

Bilobaren zorrotz horrek ikaratzen du Lorea Gernika, berak mundua zelan dabilen ez dakiela erruki barik erakusteko gordin ozar horrek.

– Sugina kexu dela soldataz? Kalera jaurti eta Peruko bat ekarri erdian. Labeko gasa karu dagoela? Egurra lapurtu mendian. Baina zelan egin pizza bat irin barik? E, Loretxu adiskidea, zelan egin behar dun pizza bat irin barik?

– Ez zakinat ba Uhaina, ez zakinat...

– Kapitalismoa behar dinagu, zera! Kapitalismoa behar dinagu pizza egiteko! Kapitalismoak bakarrik zakin egiten irinbako pizza!

– Entzuna zaukanat zer edo zer, bai...

– Zenbat eta irin gitxiago, orduan eta pizza handiagoa!

– Nik ez zaukanat eskolarik, Uhaina.

– Munduko pizza guztien irinaren erdia zahia dun!

Lorea Gernikak baietz egin du buruarekin, baina ez dago seguru bilobak baietza espero zuen. Tremendakoa da Uhaina hau, auzo guztietako maltzurrenekin batzen da eskolaz kanpoko ikastaro horietan, eta inon

diren gordinenak ikasten ditu seguru be trikitilari, bertsolari eta antzeko jendilaje horren artean. Sano kezkatuta laga du neskatoak. Ba ote dakite nire seme mozoloak eta nire errain zuntzun horrek zeinen garbi dauzkan ideiak alabatxoak? Hartu beharretan dira burukantzazino batzuk...!

Txartel mordoa atera du Uhainak ekarri duen bizkar zorro koloretsutik.

– Autobusa ari gaitun antolatzen Baionako manifara. Etorriko haiz, ezta?

– Ez zakinat ba...

– Loretxu adiskidea, ba dakin xokolata egiteko theobromako olio gehiago erabiltzen dutela kakaoa baino?

– Ene...! Baionan be kakaorik ez xokolatan?

– Ezin dun huts egin xokolataren hiriburuko manifa.

Txartel bi emon dizkio eta, zutundurik, mahairik mahai papertxoa luzatu eta dirua eskaketan hasi da Uhaina, dirua ezertarako behar ez omen duen hori berori. Tremendakoa, beldurrezkoa.

Kakalardo horia

Hainbat herritan eman zuen haurtzaroa, eta denetan ikusgarri berdinak liluratu zuen Lorea Gernika: tximiniek ke beltza jaurtitzen zuten hodeietara, gizonezkoek muki beltza jaurtitzen zuten edonora, izerdi beltza eta listu beltza eta, paretari beha jartzen zirenean, gernu beltza Zumarragan, Sestaon, Pasaian, Erandion, Legazpin, Gallartan, Hernanin... Langile haietarik anitz, hauxe zen liluragarriena, bere buruarekin solastatzen zen ahagoitik: isildu nuena, esan nuena, egin behar nukeena, egiten badudako damua, eginen ez dudana, egin banuko alferra, isildu dudan ez egitekoa, egin ez dudan egitekoa. Aitak edo amak edo izebaren batek edo agian eskolako lagun goizturen batek argitu zion gizon haiek, lanurdin zikinen barruan batetik bestera sarramuskan zihoazen metalgin haiek denak bazutela burutik, teila bat eskas edo, herri haietako hizkeran, uhala atera zitzaiela poleatik, torlojuren bat lasaitu zitzaiela, edo beruna erre. Gizon dohakabe haiek darabiltza gogoan egunotan Lorea Gernikak. Eta haien senera, tarteka, gaztelaniaren putzu beltzean bustitzen du mihia birao eder batzuk oihukatzeko

esku ukaldi bat emanez autoaren bolantean. Eremu itxi horretan bakarrik doala, inork entzun gabe. Baina ikusi bai, ikusi dute Lizarran, Lizarragan eta Lizarrustin kakalardo hori zaharraren barruan ezpainka eta imintzioka, ez beti kantari. Beldur da laster karrikan barrena eta egun argiz hasiko ote den ahagoitik eleketan aldamenean ez daraman inorekin, eta denak ohartuko direla ez dela ari azken telefono modeloa luzitzen. Koloka horretan, inoiz ez da etxetik irteten bi edo hiru musuzapi poltsaratu gabe mukia baletorkio txukun kentzearren, eta hiriko komun publiko guztien kokapena daki buruz: isildu nuena, esan nuena, egin behar nukeena, egiten badudako damua, eginen ez dudana, egin banuko alferra, egin dudan ez egitekoa, egin ez dudan isilekoa. Komun publiko berriotan ez du esku ukaldirik ematen bolantean, baina erabiltzaile bakarrekoak izaki, katiluan jesarri eta belaungaina du jotzen ahagoitik mintzo delarik, ziegako edo hilkutxako atea irakurtzen ari bailitzan. Horrelakoetan egon ez den arren, Lorea Gernika susmoa hartua da laster sartuko dutela batean ez bada bestean. Orduan, bederenik, nahi bezain beltz egin ahal izanen du muki, gernu eta oihu.

Lurrina

Marka izenaren azpian beti Paris ageri zuten Eau de Cologne eta Parfum ontzitxoak oparitzen zizkion Patxi Arbonak, eta ontzitxoen formek liluratuta ekartzen zizkion arren, Lorea Gernikak ez zituen gordetzen hustutakoan. Gordetzeko, lehen senarrak, Inazio Ansola gentlemanak despedidan oparitu Bohemiako beirateria zeukan, lurrikararik txipienak txilinka atzematen dituena –lau aldiz gertatu zaio– kopak eta godaletak elkar ukituz ehun mandolinak jotako Mozarten Eine kleine Nachtmusic-en allegroa sortzen duela. Baina pazientziaz eramaten zuen hirugarren senarraren irudimenik eza. Edonola be, lurrin ontzitxoen formak aintzat hartzeko gauza zenez, posible ikusten zuen garapenen bat: berak opari praktikoak egiten zizkion beti, eta beti desberdinak. Ikasiko zuelakoan.

– Chanel nº 5 da!

Eskuan hartzeaz bat esan zion, oparia balioztatzeko baino erosteak eman zion pozaren agergarri. Loreak, eskertuaren zeremonia zen, eskumutur barnea ihinztatu zuen sudurrera hurreratzeko.

– Marilyn Monroe zara oraintxe!

Lurrinaren gozoak gaitz eginik edo, besaulkian erori zen, leihoari beha, begiak bete berdezko itsumen.

Arben artean hostoak bereizi eta zintzilik zegoen ilar lekak biltzen, lehengusuarekin, Mungia aldeko baserri koxkor hartan, gaztetxo. Bi eskuekin, hautsi gabe, bi eskuekin helduta eten behar ziren. Herdoilak hondatzen zituen landareetarik zetorkion hauts mehe gorri bat pausatzen zitzaion besoetan, kolkoan, lepondoan, bulargainen kolkoa zuriagotzeko. Makurtzen zenetan, ondoan zen lehengusua zutik. Lekak landarea hondatu gabe eten, bi eskuekin, eta amantal korapilatuan bildu. Otarrera hurreratu zen amantala husteko. Leka samur bat hartu zuen lehengusuak Lorea Gernikaren aurrean kokoriko jarrita. Atzamarrarekin laztanduz, zanpatu samurrean lehertu zuen. Bost ilartxo guri azaldu ziren larru eten haren barnean, eta lehengusuak miaztu bakarrean bildu zituen bostak mihian, irriz. Hautsa, izerdia, beroa, ilar hauskorrak ahotik ahora... berduraren lurrin garratzean. Huraxe lurrina.

– Chanel nº 5 zen Marilyn Monroeren pijama!

Eta Patxi Arbona emaztearengana makurtu zelarik ezpain bila, halako laztura mingarri bat sumatu zuen ezkerreko belarrian: atzaparra erantsia zion piztiaren

batek, eta bihurritu egiten zion, bihurritu, xukatu beharreko zapi.

– Oheratu zaitez berarekin! –malkotan belauniko zen senarrari Lorea Gernikak, egunkariaren gainean etzanik utzia zuen flaskoa seinalatuz telefono mahaitxorantz zihoala taxi bat eskatzeko.

Ez zen atsegina izan emazteak bizi zelako ezaupiderik eman gabe eduki zuen aste hura Patxi Arbonarentzat. Jangar, lo ezin, inora ezeko, Nº 5 Chanel Paris Eau de Parfum hari so bota zituen egunak, bere buruaren errukia egiten lantuz eta madarikazioz. Halako batean –alegiatasun handiko egitada–, komunean behera isuri zuen Marilyn Monroeren pijama. Purifikatua sentitu zen. Flasko hutsa eskuan zeukala, barne-argi batek alaitu zion begitartea... Eta poza izan zuen handik harat loaren eragozgarri. Marrazkiz bete zituen kontaduria koaderno bi.

– Lorea, zatoz hona, jesarri hemen! –emazteari egin zion harrera, sofatik altxatzeko asmorik agertu gabe.

– Patxi, zer da aurpegi hori? Ez zagoz ondo! –bizar eta begi, zoro bat bilakatua zen senarra.

– Begira Chanel Nº 5 hau. Orain bai polita, ezta?

Ondoan jesarri zitzaion Lorea Gernika, musu eman zion mindutako belarrian.

– Horrelako ontzitxotan saldu behar ditugu antxoak!

Antxoen eta ondorioz fruten eta ortuarien merkaturatze modua zeharo aldatu zuen kolpea izan zen Patxi Arbonaren burutantzinoa. Lorea Gernikaren sumindura fierra ezkonduen arteko anekdota arruntetan galdu zen, irain hura, azken finean, senarraren aferak goreneraino azkartuko zituen edertasun praktikoaren sorburua izan zenez: Vatikanoko hornitzaile ofiziala izendatu zuten antxoak Parisko lurrinen mailara jasotzeaz batera.

Zorioneko Marilyn!

Ausikia

Ordu erdi egin du oraindik orain ezarri duten Elikatessen izeneko alor berrian. Ahate konfitak, egoserdiko gibelak, Italiako olioak, Irango kabiarrak... Ezer berririk ez, antzekoak ekartzen dizkio British Airwaysko pilotuen pilotuak aldian behin. Aspaldion azaldu ez zaionez, berak erosi ditu oraingoan: Bermeon gazitutako antxoak, suxietarako saltsa batzuk eta pasteurizatu gabeko esnearekin egin Kortsikako gazta. Kapritxook eskuetan dituela ibili da puska batean harathonat, bere orga ezin kausiturik.

– Zure orgaren bila zabiltza?

– Bai, ez dakit non utzi dudan...

Eskuetako produktuei behatu die bere izena eta saltegiarena paparrean ageri duen neskak.

– Zatoz!

Bazter batean ikusi du, berak utzi bezala mukuru, Andaluziako urdaiazpiko pieza ikusgarri.

– Horixe da, baina ez dut uste hor utzi dudanik.

Barkamena eskatu dio produktuak sailkatzeko arduradunak, berak ekarri du hona. Ez, ez traba egiten zuelako. Hain horniturik ikusita, eta halako produktue-

kin, egunero bete bai baina kutxatik pasatu gabe uzten dituzten orga horietarik bat izanen zela iritzi dio. Baztertu egiten ditu horrelakoak, gero hustu eta produktuak zein bere lekuan kokatzeko.

– Baina, zer diozu!

– Badakizu, itxura egin behar duen jende asko dago...

Ez dio onik egin Ainara jator honen azalpenak. Ezetz esan dio, estimatzen diola borondatea, ez duela laguntzarik behar, moldatuko dela irteerako kutxetan, ohitua dagoela. Neska urrundu delarik, betetakoa husteari ekin dio alorrik alor, gordeka. Ez dio berehala alde eginen hartu duen lotsaizunak: nabarmenkerian ibili da bere maila erakusten. Patatak, garbikariak, sukalde zapiak, sagarrak, zukurako laranja sare bat, arroza... horrelakoak erosi ditu.

– Barka ezazu, emakumea –erdaldun gogorra zaindaria–, zuk ausiki egin diozu sagar bati.

– Ez!

– Puska bat jan diozu sagarrari –barrezka.

– Ez!

– Gero poltsan sartu duzu beste sagarrekin batera.

– Aizu! Zer uste duzu zuk!

– Eta orain, jandakoa ordaindu gabe zoaz –pozik morroia, atsoak izutzeko entrenatua egon behar du.

Honetan, Lorea Gernikaren dardararen erdian, gizon gazte bat hurreratu da zaindariaren eta Lorea Gernikaren artekoa ikusten gelditu den multzotxotik, beroki beltzeko botoi bat askatuz. Abokatuen Kolegioko txartela erakutsi dio begiraleari.

– Andere honen abokatu pertsonala naiz.

– Andere honek...

– Andere honek kutxatik pasatu ditu erosketa guztiak. Bere tiketa dauka, eta tiket horretan ageri da organ dauzkan produktu guztien ordaina. Beraz, organ dagoena bere jabego pribatua da, eta zuk ez duzu eskubiderik kargu hartzeko.

– Zuk nik baino gehiago dakizu legeez, baina andere honek ausiki egindako sagarra darama hor!

Algara egin du Mikel Elordi abokatuak, algara, nolakoa ordea, zer gertatuko zeuden guztiak karkailaka irriz jartzekoa... Lorea Gernikak lasai egin dezan negar.

Eskua sorbaldan ipini dio abokatuak.

– Lasai, emakumea! Salaketa ipiniko diogu saltegiari! Lekukoak dauzkagu!

Mukiak zintza eta malkoak xuka, merkatalguneko taberna moderno batera eraman du Lorea Gernikak ezagutu berri duen Euskal Herriko abokaturik letratuena, epaileek sententzietan gaztelaniari ematen dioten tratu txarragatik sufritzen duen euskaldun bakarra. Taylor's ba ote duten galdetu dio zerbitzariari emakumeak, oporto Taylor's.

– Aizu, nik ez daukat abokatu pertsonalik, eta... Nola duzu izena?

Elordik, bestela baitakoan, orgako sagar poltsatxoari erreparatu dio birritako aldiz Lorea Gernikaren arazoez jabetzen den bitartean.

Beste bat

Herenegun esan zioten bezala, prestatua daukate argazkia. Studioaren logo azpian Lorea Gernika idatzia daukan zorrotxoa luzatu diote izena emandakoan.

– Zenbat da?

– Ez duzu ikusi behar?

Ispiluan ikusten du egunero bere burua Lorea Gernikak goizean, kalerakoan, presaka baina lau bat aldiz. Oherakoan ere halatsu. Zer misterio dauka argazki batek? Oso konforme izaten da egunaren azkenean ikusten duenarekin, nekeak edertu egiten duela esanen luke. Izan liteke ibilien eta egindakoen zamak begiaren zorrotza ahultzea ere. Atera du halako batez argazkia zorrotik.

– Nik hau ezagutzen dut!

Ordaindu gabe irten da tarrapataka, tren geltokira joan behar du. «Bera da, bera da!» ahapeka bidean, argazkia zorrotik atera-gordeka behin eta berriz. «Ez da posible!». Ez da posible bera izatea, horregatik doa urduri, inori diosalik ezin eginez. Izerditan sartu da ate automatikoak beti zabalik dauzkan geltoki berrituan, kaietara hurreratu da bihotzeko zainak eten zorian.

Hantxe, hiritik herrietara albait arinen itzuli nahi duen oldearen trafikoaz iruntzira, paretari buruz gelditu da luzaz, tinko, noiz eskuan daukan argazkiari noiz ordutegi zerrenden alboan celloz atxiki afixari begi emanez. Ezagutzen du, bai: hogeiren bat urte gazteago ikusten du bere burua bietan, inoizko Lorea Gernika berbera baita «Etxetik falta da» dioen afixakoa ere. Ikusten duenak dei dezala halako zenbakira. Azken errainarenera, noski. Afixa kentzekotan egon da, baina segurmando bat hurbildu zaio norako trena hartu nahi duen galdezka, eta alde egin du. Argazkia ordaindu gabe utzi duela ohartu da tanpez.

– Ni ez naiz hau...

Adikor hartu du argazkilariak emakumearen haserretxoa.

– Ezagutzen duzula esan duzu ordea! Nor da, zeu ez bazara?

– Beste bat!

Arintasun harrigarrian pianotu du ordenagailuaren tekladuan. Saguari eraginik, monitorea erakutsi dio. Lorea Gernika bi iruditan, gordin bata, panpinatu ondoren bestea.

– Zimurrik gabe, ni ez naiz ni.

Artistak ez du konprenitzen ahal. Alferrikako lana egin duela baino ez daki, ordu erdi pasa aurpegia zertxobait konpontzen. Gogorra, bezeroen mundua. Landu gabeko argazkia inprimatu du.

– Ni ez naute behar etxe hartan.

Bezero bitxi honek eman dion eskupekoa ikusirik irribarrea egin behar izan du argazkilariak, zimurrak sortu dizkion arren.

Tren geltokira abiatu da ostera Lorea Gernika, errazegi erabaki du afixan ikusitako telefono zenbakia errainarena dela. Errainarena ez baina izan liteke beste horrena, zerarena... Hotzikara bat orpotik kokoterainokoa.

Bihar ez

Hilerrian azaltzen da noizetik noizerat. Ez dauka inor hemen, Zugarramurdikoan, baina maite du argi azkorrian ibilalditxoa egitea bertaraino. Elizaren ondoko patarra arin gainditzen duenik esan ez lezakeen arren, maite du Basaburua karrika. Eta maite du hustasun hau ere, hilerriko inor eza.

Alabaina, egun Graziana Gorriti Fagoagaren hobia estaltzen duen lauzaren aitzinean gizonezko bat ikusi du malkotan. Zamarrako lepoak jasorik, uzkur, eztulka, eskuak galtzarbeetan.

– Zu Grazianaren gazteena zara.

– Hala jin –erantzun dio itzuli gabe, mintzoa erlats.

– Baina zu ez zeunden...?

Gizona bere baitan bildua da, ama zenaren izenari josiak ditu begiak. Ezagun du ez diola ihardespenik emanen.

– Libre utzi zaituzte, beraz.

Bozkarioak egin behar ote dizkion deliberatu ezin batek ito du Lorea Gernika. Baina emakumearen larria atzemanik, laxatu egin du korapiloa egunkarietako kronika beltzetan beltz azaldutako gizonak.

– Ez, ihes egin dut. Amaren loa zaintzera heldu naiz gau oroz.

Hemen, turistez bete dituzten akelarrekoak omen diren harpeetan ez bezala, amets egiten ahal du Lorea Gernikak: sorgina da eta ezkutu samarreko ahalak ditu, suak ez du hautsiko, urak ez du eramanen, berak bestek ez dakiena daki, belagilea da, hegan egin leza-ke lanbroan barna noranahi.

– Ederra da ihes egin ahal izatea.

Buruz buru paratu zaio gizona, bizar arteko aho eta begi. Kriminal bat, bai. Seme honek eman nahiga-beek hil zuten Graziana.

– Orain presondegira itzuli beharra nauzu.

Baiezkoa egin du buruarekin Lorea Gernikaren es-tonamendua ikusita.

– Presondegian ez banengo gaiztagin segituko nuke amaz oroitu gabe.

Eta bi urrats eginik beso artean hartu du tinko emakumea, tinko, pot bana emateko masailetan.

Horrelako bihotzondokorik! Oinazturak sutu ditu Lorea Gernikaren egur iharrak.

Bihar, berak besarkatuko du kriminala.

Bihar ez, gau honetan berean, deliberatu du Gra-zianaren gazteenaren joan presatuari so.

Bidekoa

Horra Joseba bere makuluarekin eta bere laguntzaile beltzaranarekin. Bazkaritara doaz Lekeitiarrara. Ganorazko jatena plateretan eta zorrotzeko tertuliak mahaietan, hartu berria daukaten portugaldarrek telebista pilota eta futbol partidak ikusteko baino pizten ez dutenez. Don Jose bera da Joseba esaten dioten hauxe, tente oraindiokan, pausoa uger eta ilea urdin izatea. Esan eginen dio, bai, esan eginen dio. Inor ez karrikan, neskatila eta abadea buruz buru orduan lez, perutarrak ez ditu berbak ulertuko. Esan eginen dio, andrazko bat dela frogatu behar du, bakea eman behar dio bere buruari.

– Entzun beza, Don Jose. Nirea bideko lokatza zen, berorrena...

Zainikarak emanda, zer erantsi ez dakiela, hustu egin zaio pentsamendua. Behialako sargori hartan ezin egin izan zuen ihesa egin du Lorea Gernikak, malkotan, Don Jose birziklatua, ikastolako etika irakasle ohia Ezkioko amabirjina ikusi izan balu baino asaldatuago utzirik.

– Goazen, Joseba, hoztu eginen zara hemen! –esan dio laguntzaileak amultsu, besotik helduta, Gaztelan daborduko galdua den gaztelania gozoan.

Hamabost urte behialako hartan Lorea Gernikak, nonbait hor. Bizarra egiten hasi berria Joantxo Izeta. Neska herbolario bat osatzeko lanean ari baitzen, elkarrekin galtzen ziren basoan, hostajetan, eta errekako putzuan ere laketzen ziren lantzean behin, harripeko amuarrainak laztantzen irakatsi behar zionez mutilak.

Sargori hartan, ihesari ekin behar zion unean, eskua jaso eta geldiarazi egin zuen orduko Josebak, Don Josek alegia, lagunekin brilean jolasten izerdituta barrenkalen gora etxerantz zihoan hartan neskatilari ezkaratz ilun batetik agermen irten zitzaion santuak.

– Lokatzetan zabiltza, Loretxu! –sotanak ematen zion goratasunetik.

Loretxuk besoak antxumatu zituen, Don Joseren begiei bere bekatuzko harrotasunak ukatuz.

Haizebelatsa

Gailurreko gorriaren eta zeruko urdinaren kontrastean idiak zuri gurdiari tiraka ardatz labur baten muturrean: multzokako fabrikazioa ez bada, esku oneko sopletistaren batek eginiko miniatura.

– Bai, bai...

Baserritarrak zituen gurasoen lau gurasoak, ezagutu zuen nekazarien bizimodua. Baina ez du beste hitzik atera, polita, polita dela, bai. Lorea Gernikak entzun egiten du, eta entzuten ez dakien jendeak halako nagusitasun bat nabaritzen du hurkoari jaramon egiten ikasi duen andrazkoaren ondoan: haren begi erneak euren hitzen jasotzaile ikusten dituzte. Entzuten ez dakienak ez du ikusi ohi garbi. Egia esan, ez zaio gustatu ilobak gailurrean paratu duen orratza. Lazkaomendin eraikitako udaborda hau ere zatarra egiten zaio, ekarri egiten dutelako etortzen da hain sarri lorategian erretako arkume txuletak jatera. Eta arkume txuletak debekatuak dauzkalako. «Ez al naiz ezezko bat erakusten ari baiezko triste bat ematen

dudanean?». Ez du balio inor azpian hartzeko, baiezko burumakurka berdinak eginen dizkio aldekoa edo aurkakoa azaltzen dionari.

«Zer eskubide daukat nik...?».

Baina zabarki tronpatzen dira «Bai, bai...!» esan duelako ados dagoela uste badute. Lorea Gernikak ez dauka proselitismoaren harrik, lotsa emanen lioke inor bere iritzietara ekartzea. «Iritzia emanda, ideiak azaltzen ote dira? Eta ideiak, hitzetan bakarrik azaldu ote litezke? Ez ote dira ideiak azaltzen eginean edo eginezean ere?». On egin zion, nabari da, Markus maisuaren filosofia ikastaroak. «Iritzien arteko eztabaida ez da eztabaida, ideiak dira ipini behar direnak kolokan». Eta ideiak... Olaxtek oinak miazten dizkiotela promenatu izan da Ondarraitzen ideiak harrapatu beharrez, *deusetaz* pentsatzen duela edo ez duela. Behin, goiz lanbro batean, «Berdin zait nondik jotzen duen haizeak!» egin zion ahapean itsasoari.

– Aspaldi ez dela sagarrondoa landatu nuen nik parke publiko batean.

Bere baitarako baina entzungarri, atari aurreko larretxoan seme gazteenak zaharkindegi batean erositako golde bernizatuari beha, tinko, besteei bizkar, elkarri nahi hainbat keinu egin diezazkioten lasai alabek eta suhiek eta semeek eta errainek: Markusen maisuberbak hartuz, esan genezake Lorea Gernikaren familia *habitus* batean bizi dela naturala iruditzen zaion inkulturan, Lorea Gernika kulturan mugitzen den bitartean espiritua atertu gabe galdekatuz. Horrelakoaren kontzientziarik ez daukan arren.

Parasola

Pozik zetorren, fistuka bederen: putz eginez gizona Jean Lissar karrikan ezpainak zimur. Batek jakin zertako pozik edo fistuka, eskuak erdi dilindan, ezkerrekoan parasola gerritik tinko. Atertu duelako, ausaz.

– Otoi, adiskidea, barkamenduarekin...

Tanpez eten behar izan du urrats fierretan neurtzen zetorren ibilaldia zapatadendako erakustegiaren parean. Besoak saihetsetan, parasola zizpa iduri, armadan ez zen tinkoago geldituko kaporalak agintzen ziolarik. Ahal duen xehekien erranen dio emazteki garratz honi non den botika, eskuaraz, frantsesez edo beharbada gaztelaniaz. Ingelesez ez hain xeheki.

– Kanbia ezazu parasola atxikitzeko manera!

Garratza emaztekia, bai! Kontu hartzen karrikaren erdian bere usantzez! Garunak petto, ausaz? Hara, gibeletik heldu den bigarren emazteki gazteago bat gelditu zaie ondoan!

– Arrazoia duzu, Lorea Gernika, ene senarrak ber gisan atxikitzen du!

O, hazpandarrak! Nola dakiten xarmatzen! Samurtzeak ez du balio, parasola eskaini die.

– Nola behar nuke atxiki?

Gaztea ez da menturatu hartzera, adineko lagunari behatu dio, eta Lorea Gernikak, men eginez, bi atzamar kako luzatuta hartu du auzigaia eta, nabarmeneko delikateziaz, fanfareko errejentak makila baino airosago itzulikatu du batekoz bestera, hots, puntaz beheti.

– Horrela!

Bozkariotan zetorren gizonak durduzadura txipi bat ukan du parasola eskuratzean. Puntaz beheti atxiki du oraingoan, hala nola koronelak herrestan sabrea. Onespena emanik noski, aitzina segitzeko bidea utzi diote emaztekiek alboetara doi bat hastanduz espaloiaren estuan.

– Biba Hazparneko andere plaxentak!

Eta zaluxko lotu da gizona berriro promenadari. Ez da dudarik bozkariotan urrundu dela, eskuak dilinda biziagoan eta ozen fistuka baitoa ezpainak zimur eta puzka karrikako hezitzaile plaxenten behako zorrotzaren pean, parasola beti gerritik atxikia eta aitzin-gibel dilindan, orain bai, puntaz beheiti.

– Lorea Gernika, jakin ezazu nik erranik. Milatan agindu diot senarrari ibiltzeko parasola makila era-

maiten den maneran, baina gerritik atxikia darama beti, heldulekua lurrerat eta punta gibelerat.

– Haurren bati begitik sartzeko ere!

– Hori pentsatzen dut senarrarekin noalarik!

– Gizonen baten hebaintzeko ere!

– Entzun, Lorea Gernika. Bihar, hemen ibiliko zara?

– Bai, egun oroz jalgitzen naiz tenore honetan.

– O, Lorea Gernika! Zu ez zaitu uzkurtuko apo kixkilak! Segur naiz...! Bai, Lorea Gernika! Bihar hemen azalduko naiz senarrarekin, parasola ateratzen du beti, ez du txanorik ez kapelurik ez txapelik nahi, eskualduna ez omen da gizon parasolik gabe...

Sumatu du zer datorkion Lorea Gernikak, erabaki egin beharko du senarra leziatu ala emaztea lagundu.

– Zuri ez dizu ez entzuna eginen... Hona ekarriko dut eta zuk... Zuk parasola atxikitzeko manera kanbiaraziko diozu.

– Ene senarrek ere ber gisan atxikitzen zuten ni ezagutu aitzin! –horrelaxe trenkatu du, siku, zeukan zalantza.

Adio gabetarik abiatu da emazteki gaztea ezpainen ordez kopeta zimur Elizaberrirat, Lorea Gernika kokotsarro Minhotzerat. Bizkitartean, emazteki gaz-

tearen arazoa ahazmenduaren errekara igorrita borrokan hasia da bere buruarekin: nondik etorri ote zait oldar gaizto hori, horrelako gentlemana, horrelako gizon kriketa laidoztatzeko? Ni ez naiz nehoiz horrelakoa izan!

Gure zoriona

Adatsa zabal, haizeari buruz abiatzen zen orbeatarren lantegian sorturiko azken bizikletari eraginez. Zeren bila? Ez zeukan helburu zehatzik bizitzan. Espero ez zuela, ordea, asmo bat egin zuen adiskide edo asmo batek egin zuen adiskide, ez da gauza ziurra. Zoragarrizko egunak ezagutu zituen, Lorea Gernika gaztea harkaitzetan jauzika datorren errekasto bihurtu zen, eguzkia urtzen delarik hunkitzen diren guztiekin bat egiten duen bihotz. Asmoa isila zen. Ikara ematen zuen, erakarri egiten zuen. Asmoa ederra zen. Nolako ahapekoak egun haietan, nolako gorrotoak Getxoko batzokia izana zen eraikin irainduan, gerlako garaileek Lorea Gernika iragaten ikusten zutenean asmoak besotik edo asmoa besotik zeramala! Beste gerla bat behar piztu behar zen.

Egun haietako batez –eguzkia marra gorri itsasazalean–, eztitasun uneak bihotza laxaturik, «Gure zoriona...» hasi zen Lorea Gernika. Hasi bazen hasi zen! Besterik esan ahal izan zezan baino lehen egin zuen berba asmoak, eskuak buru azpian etzanda zegoela ganorabako orakulu bat iduri:

– Gure zoriona, posibleen metaketak ekarriko du!

Idortu egin ziren munduko errekastoak, mahaspasa uzkurtu zitzaion bihotza Lorea Gernikari. «Posibleen metaketak...!». Ahalke gorriak hartu zuen, eta ihesari eman zion urrun, urrun, asmoa burutik eta akordutik kendu beharrez. Urteak bizi izan da han eta hemen, beti bertako, beti besteko. Ile librea zabal, eta helburu zehatzik ez bizitzan. Baina amaitu egin nahi luke behin esaten hasi zen esaldi hura. Txangorik merkeenetan eta napolitanak kantatzen dituzten abesbatzetan ematen du izena. Atzo kontaktu dei labur bat argitaratu zuen kazeta ezagun bateko harremanen sailean, «Abstenitu bitez isilak, ederrak eta Getxokoak» oharrarekin. Asmo hura bezala hurrengo batzuk ere motz geratu zaizkionez, iduri luke ametsa behar duela adiskide. Hainbeste maite dituen zimurretarainoko xaloa dugu Lorea Gernika.

Geopolitika

Harrapakan irten da etxetik albistea entzundakoan, ispiluari egunonak emateko ezindua, ilea kapelu morearen barruan eta berokiaren botoi bakarra lotuta, haize bortitzaren barruan sartu ahal izateko erarik egokienean alafede. Leporaino zetorren trena, eta nola edo hala igotakoan indarka egin behar izan du leku, zutik, zenbait bidaiariren kexamenduari ez entzuna eginik.

Negua bikain doa aurten, astero izan ditugu ostotsa, oinaztura eta ipar mendebaleko haize boladak hotz, busti eta zakar, hain zakar non euri tantek ezin izan duten lurreraino heldu. Arantzazu aldetik jotzen duen haize bulartsu horrek erronka egin digu, astingarri astunak behar dituela ari izan zaigu negu osoan adierazten euria laino arrastakak bezalaxe batetik bestera eramanez. Azken finean, ipar mendebala bere indarraren heineko oztopoen bilaka dabil hilabete ilun hauetan denetan. Gaur goizean, esaterako, Aralarreko zuhaitz handiena bota du, zuztarretik. Ehun, berrehun, hirurehun tona urteko zuhaitz bat bota du Aralarren –haritza izan dela dio karrikako marmarrak–,

eta hori nahikoa ez nonbait –hauxe dateke larriena babes zibileko arduradunen iritzian–, bideberriaren erdian utzi du trabeska Uharte-Arakil inguruan.

Beste hitzik ez bagoian, ehun berrehun hirurehun tona urteko zuhaitz handi bat zuztarretik aterea eta errepidearen erdia botea! Errepidearen erdian! Hori ikusi beharra dago, hori argazkitan hartzekoa da.

– Inork ez al daki kantari?

Erantzunik ez, behakorik ez andrazko lotsagabe horrengana.

– Berrehun euskaldun bagoi batean eta kanturik ez!

– Ez goaz gerlara, kantari hasteko.

Irratiak hondamendia kokatu duen unetik hurbileneko geltokian hustu dira trenaren bagoi guztiak. Bidaiariak elkarri bultzaka jaitsi direnez, igotzen baino areagoko lanak izan ditu Lorea Gernikak osorik lurreratzen. Hauspoa bero iritsi da erromesek, makur eta egoskor, haizeari buruz bideberriaren ertzean osatu duten ilara gaitzaren hondarrera.

Ez zaio askorik axola zenbat tona urte eduki lezakeen zuhaitzak, ez haritza, pagoa edo eukaliptoa den, ez bideberriaren erdian trabeska etzateak suposatzen duen tresonda politikoa. Lorea Gernikak azpian harra-

patutako baten bat deskubritu nahi luke: hurrupa bat emanen lioke poltsan ekarri duen bizigarritik, eta hitz ere bai, hitz emanen lioke ez duela eskutik utziko ospitaleraino. Haatik, franko garbi gaztigatu dute komunitateko irrati ofizialean –haizeak botatakoa haritza dela ezkutatzen ari den horretan– zuhaitzaren azpian hilgabeko batzuk egon litezkeela eta horrelakoren bat ikusiz gero parte emateko ordenako indarrei, arriskutsuak izan ohi direlako. «Hortxe dago! Hortxe dago!» hedatu da ahoz aho. Argi urdin batzuk ageri dira han aurrean itzulika. Telefonoak eta argazki kamerak atera dituzte ilarako gehienek, bakan batzuek aizkorak. «Ederra egin behar nuen ohatzean geratuta!». Lepotik heldu dio Benedictineari Lorea Gernikak, eta kantari ekin dio: gerla dugu.

Kukusoak

Ez die esangurarik atzematen, baina paperezko pinportek nolako hunkidura hatz-mamietan: sentikortasun berri bat, idatzi gabekoetarako bidea.

Uste horretan dugu Lorea Gernika aspaldi honetan.

Ez da inoiz okulistarengana joan, ez du beharrik. Moztasun mota guztietarako sendagailua dauka etxean, kukuso merkatuetako eta merkezurreko ferietako anabasa maite du eta horrelakoetan erosten ditu postal zaharrak pazientziaz bereizirik eta betaurreko iazkotuak edonolaka. Batekin sobera hurbil ikusten ditu letrak, bestearekin lauso... Danimarkako hiru gaileta kutxatan dauka bilduma, eta astero aldatzen ditu poltsan ibiltzen dituen bizpahirurak. Mesede handia egiten diote betordetailu historiko hauek botikan: «Oso galdua nago!» edo «Oso mejoratua nago!» esaten ahal du «Euria egin lezake» bezain segur baskularen leihatila digitalari beha. Halako batez, horrelako esperimentutan zebilela, itsutzen ari zela sartu zitzaion kaskoan, laster ez zuela eguzkituko beretzat, eta on lukeela Braille metodoa ikastea. Hasi zen, erosi

zuen atzamarrekin irakurtzeko metodoa. Astuna egin zitzaion, baina ez du etsi. Aiherrak dago ilunpean bizitzeko, eta orduak ematen ditu geroztik etxean zabuka batetik bestera, etorkizunera moldatzearren begiak lotuta, egia beritablea barik Agosti Xahoren bila iduri, haztamuka.

– Amatxi, zer da liburutzar hau?

Eztitxuk aurkitu du letrarik gabe idatzitakoa. Traste zaharren gelako zoruaren erdian zabal eta misterioz betea.

– Esplikatuko dizut egunen batean. Sekretua da, ez esan inori.

Orain, hemen, Lorea Gernikak bilobatxoari egin zion gutuna irakurri behar zenuke. Ezin duzu, ez baita oraino hitzak lerrokatzen hasi. Dena dela, nahiz bilobatxoari argitasun bat zor diola ahaztuxea duen, Lorea Gernikak asmamena lantzen dihardu, belaun gainean daukan eta konprenitzen ez duen mundu bati laztanka, hatzetarik bihotzerainoko hunkiduran: milaka kukuso zainetan goiti, antzekoa.

Barrutasuna

Baratzetik deus ez dakarten lekak, tetrabriketik isuri laranja zukua, goitikoa ematen duen salda geza, moteleneko gailetak, hesteak bihurritzen dituen kafesnea... Gezurra da, jaki goxoak ekartzen dizkiete. Eta gezurretan ari delako froga, edozein bisitarik hartzen du legatz zatitxo bat eta Ummm! egiten du, jan, ohean ezindua dagoen Lorea Gernikaren aitzinean jan.

«Jan egin behar da» erizainek, laguntzaileek, garbitzaileek.

«Jan egin behar duzu!» semeek, alabek, errainek, suhiek, ahizpak.

«Despeditu egin beharko dugu sukaldaria!», barrezka, barne arazoetako mediku-buruak, ospitalean oraindik aste pare baterako daukaten emakume honek erretiluan uzten duena ikusirik, atzo bertan.

Lorea Gernikak badauka bere gorputzaren berri, badaki bihar ez bada etzi gosanditu eginen dela, ezin izanen duela barauan iraun. Jan eginen du, nola jan ordea, apurrik ere ez dute eramanen zaborretara. Eta jandakoa urdailera jaitsiko da, eta urdailetik hesteeta-

ra jaitsiko da, eta hesteetarik... Damu du oraintxe senar bat ez edukitzea ondoan, geratzeko bertan aginduko lioke erizainak eta garbitzaileak bere ezkutatzekoak manipulatzera datozenean, ez irteteko ergelok agintzen duten moduan: gera zaitez eta ikusi ezazu zer naizen, nola zabartzen nauten, zeinen erraz endekatzen duten gure biluztasuna, hemendik irtendakoan maite baldin banauzu, maiteko nauzu horratio.

– Lorea, nahi ezik uzten duzuna gustura janen dut nik –aldameneko ohekoak, lotsati–, eta bakean utziko zaituzte.

Herenegun dutxara eraman zuten ohatilariak omen ziren bi gizonezko gihartsuk, etzanetik atera eta plastikozko karroxan jesarri eraginda. Komunean utzi zutelarik, «Zuek anderoak zarete!» esan zien irri triste batekin, baina ez zioten ulertu. Neska bat etorri zitzaion berehala, erizain laguntzailea nonbait. «Orain, Lorea, dutxatu eginen gara!», eta estalgarria askatzen hasi zitzaion. Gogor heldu zion Lorea Gernikak gaineko arinari, bularrean estutuz. «Hasi zaitez zu zeure arropa eranzten ni neroni biluzten naizen bitartean!». Honek ere ez baitzion ulertu, isilik geratu zen burutik egindako emakumeari so zer egin zezakeen asmatu

ezinik, eta sorospena eskatu zuen sakelako telefonoz, sorospena.

«Zer egiten dute horiek hor?».

«Hartu egin behar dituzu!».

«Gustu txarra al dute pastilek ere?» barrezka, barne arazoetako osalari alegerak.

Gaur goizean, beti bezala azaldu denean, egia esan dio Lorea Gernikak.

– Ezin dut nolanahi jan, ezin ditut pastilak nolanahi hartu.

Aski izan du Hernandez doktoreak buru keinu bat, alboan zeuzkan erizainak karrajura isilik bidaltzeko, bakarrik utzi dute hirugarren solairuko kasurik zailenak daramatzan mediku petral sonakoa. Bildua zegoen ohe arteko errezela hedatu du gero Nagore Hernandez gazteak, aulkian jesarri da, pultsua hartzeko aitzakian goxatu du bere esku beroetan perfusioak mazpildutako Lorea Gernikaren eskua, eta ahotsa apalduz esateko eskatu dio, esateko lasai, gainerako guztiak aginduka ari zaizkio eta mediku honek eskatu egin dio.

– Oker daude. Beste horiek, denak. Berdin da. Komuneko lotsak, ospitale batean? Hemen gorputzak ez

dauka barrutasunik, dena agerian gaude. Sei semealaba izan ditut nik, denak ospitalean.

– Ahalegintzen gara arduraz jokatzen, baina...

– Beste kontu batzuk dira intimoak hemen! Zuk uste duzu anbulantzia batean sartzea intimoa dela?

– Anbulantzian ekarri al zintuzten?

– Seme batek ekarri ninduen taxian. Baina zuk uste duzu taxi batean sartzea arropa poltsa batekin ospitalera eramateko aginduz, intimoa dela?

– Gizartean bizi gara, Lorea.

– Bai, baina anbulantzian eramanen nautela esan didate! Gizartea ez dabil anbulantziatan, multzoan intimitate handiagoa daukat.

– Zure onerako esan zizuten, baina ez da beharrezkoa. Utz ezazu nire esku.

– Dena erabakitzen duzuela niri hitzik egin gabe, hori da intimitatea urratzea.

Hasperen adierazgarri bat egin du Lorea Gernikak, begiak bildu ditu.

– Ez al didazu galdetu behar noiz arraio hartu behar ditudan pastilak?

Baina begiak zabaldu dituelarik ez du inor ikusi aulkian. Lo egin duela ziurtatu dio mahaitxoko erlojuak.

Telebista ez dute oraino piztu, inor ez aldamenekoak, zuritasun bero bat bakardade zoragarri hau babesten. Eskua luzatu du mahaitxora, hartu ditu hartzekoak, ahoratu ditu, ekarri du ezpainetara ur botila txikia, irentsi egin ditu.

Eta susmo txarretan jarrai dezatela alabek, suhiek, semeek, errainek, ahizpak...

Senarrik izatera, hari ere gelatik irteteko esanen lioke pastilak hartu behar dituen guztietan, edo gosea etorritakoan.

Pinpilinpauxa

Lehen zebra marra zapaldu behar zuela, «Lorea Gernika! Potxola! Zer bizilarru?» leihatila ilunduak dauzkan 4x4ko gotorretik. Ganberro halakoa, hirugarren senarra izan zuenaren adiskidea, neumatikoen kontrabandan aberastua... besoa leihatilatik atera eta autoko hautsontzia makadamera husten! Hemen, Miarritze barnean! Paretik iragan denean bozina jo dio gainera zorripuztu horrek, begiak makadamean joan da beste espaloiraino. Elysées Parfums ondoan zabaldu duten brasseria afrusean sartu behar izan du Lorea Gernikak.

– Emadazu sosa otoi tabako makinarako.

Ezki-ura eskatu du. Behar du. Jaso du tabako paketea, zigarro bat atera du, sudurpean pasatu du lurrina hartzeko.

– Tila ona duzu etxekandere, tabakoa ez!

Horrelakoak esan eta tabakoa saltzen dute, hementxe oharra pipatzea ez dela on.

– Nik, tabakoa, estiloa erakusteko behar dut.

– Ez da dudarik, ezagun duzu gustu onekoa zarela, bertzenaz ez zinen hemen sartuko –irriño batean, estiloa zer den erakutsiz.

Balizko ke bafada xarmagarri bat jaurti du Lorea Gernikak ezpainak biribilduz. Eta balizko errautsa jaurti du balizko ezki-uretan, irazekiko ez duen zigarroa eri arinarekin joz, emekiro. Horretan harrapatu du hirugarren senarrak lehen emaztearekin ukan zuen semeak, Biarritz Olimpiqueko direktiboekin atean azaldu delarik. Eri artean zeukan zigarroa katiluaren putzuan jausi da, denek ikusi dute. Musu frantsesik eman gabe, nolatan hemen, ongi ote dagoen galdetu dio Antontxuk agurreko.

– Jaikitzen naizenerako ustetua naiz ez dudala egunaren azkena ikusiko –erantzun dio herabe baina beltzuri.

Malenkonia jabetu da Lorea Gernikaren sentimenaz, eta isilik gorde du tabernariari esan nahi ziona, «Aspaldi deliberatu nuen pinpilinpauxa izatera».

Perfekzioa

«Ni lehen ergela nintzen», esan dio bigarrenez Lorea Gernikak iragan astean Trenaren Museora eginiko txangoan laburbildu zuen lagun berriari. Ez bera bezainbeste ordea –esan dio marina merkanteko kapitain ohiak jaka berdearen hegaletik hildako zenbait zelula estiloz kentzen duela–, bera Elantxobeko ergelen kapitaina izan zen, kalamidade hutsa. Eta gaztetan egin zituen balentria tamalgarrien zerrendan abiatu zaio atertu ezineko emanean. Munduan barrena egindakoez interesatu zaio Lorea Gernika, Hanburgon, Maracaibon, Filadelfian, Parisen, kontatzeko, kontatzeko Pariskoak... Parisek ez daukala porturik argitu dio kapitain harroak «Parisek ez dauka porturik, laztana!» belarrira esanez alai eta barkabera, baina «Parisek andrakalak dauzka!» isildurik. Inoiz Bixente Garat tenor handiarekin Baionan hartu zuen munduko xokolatik onenaz oroitu da Lorea Gernika kafe-frontoi mustu berrian jesarri direlarik. Ez, ez du xokolata eskatuko, Azpeitian alferrik da. Oporto bat hartuko luke gustura, baina ez du horrelakorik ikusi botilen artean. Alkoholik saltzen ez duten galdetzea ere otu zaio,

baina ez ditu azpeitiarrak gaizki utzi nahi. Azkenean, «Ni lehen ergela nintzen» esan du, noski, harira gabe. Zer behar ote du txoralda honek –kapitainak bere bizarrerako Urola ibaiaren bazterretik zezenketara doazela azpeitiar petoen multzoko–, orain arrunt bizkorra dela entzun nahi ote du? Ez, lakio bat ari zait prestatzen, haserretzeko aitzakia bila dabil, tentatzaile profesionala izan behar du, ikasteko astia izan du behinik behin, ezagutu ditut honen antzeko sugegorri batzuk munduko portuetan, zera, portuetan ez, alegia... Sartu dira noizbait zezen plaza dotorean, dena ke, izerdi eta odol susma. Haizekin ikusgarri bat ireki du Lorea Gernikak jokalari maltzurrak karta mazoa zabaltzen duen erraztasunarekin eta freskura ekarri du beretzat, kapitainarentzat eta inguruko fiestazale guztientzat. Jo du turutak lehen zezenak irten behar duela, zabaldu du plazako morroien ugazabak toriletako erromara «E, e!» deituz. Isiltasun sakratu batek hartu du plaza: heriotzak ageri behar du ilunpetik eguzkitara, dotore, txalogarri, gupidarik ez dakiten adar ederrak luzitzen. Orduan, azpeitiarrek arnasarik ere hartzen ez duten adialdi eukaristiko horretan, «Ni lehen ergela nintzen» entzun dute gerizpeko bosgarren tendidukoek. Burutik ote dagoen hasi da pentsatzen lehorreko kapitain

zangarra burua zezenak baino areago makurturik «Zu lehen ergela zinen» –pentsatu du egitea oihu–, «...eta geroztik ez zara izugarri azkartu!», horixe oihukatzea, lagunaren letaniak burutik eragin baino lehen. Baina Lorea Gernikak hartu dio aurrea.

– Ni lehen ergela nintzen, orain ez naiz hain perfektua!

Zezena, eskaintzen dioten zapiari uzkur, kafan ari da Urola ibaiko hondar finean aurreko ezker apatxarekin. Fistuka hasi dira eguterako tendidoetakoak.

Jauntxoa

Gogait eginda zeukan gerizak. Izan ere... Ez, ez gaitezen entrometi bikote baten isilekoetan: plater zikinak dutxapera. Moztu eta paretan itsatsi zuen Lorea Gernikak, despeditutako laugarren senarra balu bezala. Laster eraitsi behar zuten ondare katalogatutako lantegi baten paretan, hemen berton, Durangon. Hurrengo goizean egin zion bisita. Zer ikusi dun hor bart, ilunpean urtuta zelatari? «Sekulakoa!». Horixe besterik ez zion gerizak erantzun. «Izutzekoa!». Orduan geriza paretatik kendu eta Lorea Gernika bera geratu zen lantegi bikainaren ate nagusiaren ondoan, herriko gazteek egin margolana iduri. Jakin behar zuen berak ere, ikusi behar zuen berak ere. Adio barik urrundu zitzaion geriza. Arratsa ez zen Lorea Gernikak gura bezain arin heldu. Sekulakoa? Izutzekoa? Hurrengo hamabi egunetan euria egin zuen, langarra, gexala, matutsa, jasa, truxala, erauntsia, bustitzearen aldaera bakarra barkatu barik, etenik ez, argi printzarik ez, bero hatsik ez. Eta gaua ez zen gaua, belun bustia baizen. Aspergarria! Higuingarria! Atertu zuen halako batean. Han zetorren *bere* geriza. Ez bakarrik baina.

Jauntxo dotore batekin besorik beso, kasik musurik musu. Bazakinat utzi egin behar nindunala. Berak moztu eta abandonatu izan ez balu bezala. Guztiok dauzkagun aldarte petralak izaten ditu Lorea Gernikak. Ezer ez da betiko, partikularzki betikoa bihurtzen denean. Mihia erakutsi zion gerizak, eta osteratxoa jarraitu zuen *bere* jabe dotorearekin: hari emona zegoen bihotzez. Eta eguzkiak gustagarri jotzen zuen arren, Lorea Gernika paretan geratu zen hormaturik, beldur. Sekulakoa. Izutzekoa. Burua aldatzeko aukera izan zuen behin, eta ez zuen aldatu. Belarriak kendu eta jaurti egin zituen harroaldi batean, bai, baina geriza ez liteke hazi kendutako belarriak ostera hazten diren bezala. Eta horren beldur da orain, horrek dauka aztoratua, zelakoa izanen ote den egun eta eguzki atxikiko zaion zaindari berria, zer gimnasiatara behartuko duen, zenbat jarrera gaitz ikasi beharko dituen... Bizitzaren aurka egiteko balira, bederenik!

Estolda

Bilbora jaitsiko duen busaren geltokira iritsi da zein motatariko zuhaitzetakoak ote diren identifikatzeko nahikoa jakinduriarik ez daukan orbelak zapalduz.

«Andrazkook horrela elkar hartuko bagenu...!».

Indautxuko jostundegi batean iaz erosi zuen kapelu ziratua jantzirik, aterkia bildu du Lorea Gernikak. Ez da Bilbobuseko geltokiaren aterpean babestu, metro batzuk goragoko estolda itoraino joan da: laster gainbeheran datorren errekatxoa zintarriraino haziko da.

«Lokomotora gelditu eragin zuten hauek behin!».

Ez daki zehazki zer, baina emakumezkoek elkarrengana egin balezate gauza ederrak bururatu ahal izanen lituzketela pentsatzen du Lorea Gernikak orbelak espaloian ikusten dituelarik. Horren gauza ahula, horren gauza deusa, haize putz bati buru ezin egina, zalantzarik gabe, emakumezkoaren antzekoa egiten bide zaio, emakumezkoaren zanpaketaren sinboloa, ahultasun historikoaren alegia.

– Abiadura handiko trenaren lokomotora gelditu eragin zuten hauek Frantzian!

Ez diote jaramonik egin geltokiko markesinan daudenek. Zeregin horretan jarraitu du, estoldaren sarrerako burdinaga babesgarrien artean trabatu orbelek eraiki duten antapara desegiten aterkia lagun, urari bide egiteko. Gazte bat hurreratu zaio, zigarroa ezpainetik kenduta.

– Zergatik ez dituzu orbelak bakean ixten?

Hortzartean egin dio berba, haserre. Burua altxa barik, beharrean kontzentratua erantzun dio Lorea Gernikak lasai.

– Orbelak ixten baditugu estoldak trabatzen, uholdea sortuko da!

– Eta zer?

– Zer? Urpean Bilbo!

– Gurago nuke egia balitz! –zorrotz, emakumeak.

Gelditzeko keinukaria piztuta dakarren pullmana hartzera aldendu zaio gaztea Lorea Gernikak burua jaso duenerako, ez dio aurpegia ikusi ahal izan. Ahotsa tabakoak lakartua, baina andrazkoa.

«Txorierrikoa...!».

Ez da mugitu estoldaren aho ondotik. Indalezio Prieto hiribidean behera abiatu den busari erreparatzen egon da kezkatan, mandatuen zerrenda etxean utzi duela gomutaturik. Aterkia zabaldu du, etxerantz

abiatu da ukondoa minbera. Bidearen erdia egina daukala, zer edo zer etorri zaio arnasan burura.

«Noski! Neu bai ergela!».

Eta estoldara itzuli da ostera pauso txikitan, begiak erne, orbelik ez zapaltzearren.

«Atsoon artean badagoz otsoak... Baita behar be!».

Sekretua

Zein da zure sekretua, Lorea Gernika? Esan, Lorea Gernika, zer egiten duzu beti garaile izateko? Eta Lorea Gernikak ihes egin die. Ez du sekretua azaldu gura. Zergatik ez? Bizkarretik oratu du alkateak maitekiro, inguratu egin dute antolatzaileek.

– Gure herriaren izen ona Euskal Herri osoan barreiatzeko aukera paregabea dugu, Lorea.

Amore eman behar izan du. Badaki damutu eginen zaiola gero, baina tira, behingoagatik baietz. Eta esklusiba bat eman dio telebistari edo, zehazkiago, Garbiñe Amiama telebistako galdegile ausartenari, jakinmin publikoaren mustur ofizialari.

– Gurekin dugu, azkenean, aurten ere Antxoa Garbi txapelketaren irabazle gertatu den Lorea Gernika.

Ondarroako *XXXVII. Antxoa Garbi Txapelketa Lehen Saria* urre haritan brodatua daukan txapela erraldoiaren azpitik bekokira jausten zaion ile printza ezpaina gorantz luzatuta putz bortitzak jaurtiz uxatu ezinda Lorea Gernika, sudur-belarriak hainbat gorri masailak, mahukak beso erdira.

– Esan iezaguzu, Lorea, zein da zure sekretua antxoari tripa-buruak horren arin eta horrenbeste denboran kantzau barik kentzeko?

– Ni fabrikako umea naiz...

Hamabi urteko hasi zen peska garbitzen, ontzian bertan, etxera dirutxoren bat eroan ahal izateko. Arrastekoek dena batera ekartzen zuten, arraina bereizi barik, eta hura antolatzen, garbitzen, balio ez zuena jaurtitzen. Hantxe, baforeko bodegan. Eta gero fabrikara hasi zen, filetean lan egitera, antxoari burubarrenak atera, gatzitu eta latan sartzen.

– Baina hainbeste antxoa garbitzeko, teknika berezia behar da!

– Ez daukat sekreturik.

– Ez duzu inor gomutan, zera... Antxoari tripak ateratzen dizkiozunean, ez daukazu inor gogoan? Politikoren bat, agian?

– Ez, ez! Inor baneuka gogoan, ez nuke txapelketa irabaziko... –eskuak *Cafés do Brasil* dioen kalamuzko zaku batekin egindako mandar politean idortzen dituela, barrezka.

– Zer ba, Lorea? Jakin behar dugu hori.

– Oraintxe gomutan dauzkadan baten batzuei, astiro kenduko nizkieke tripak...

– Astiro... Alegia, maitasunez, esan gura duzu? Edo gorrotoz, agian? –kazetarien kazetari Garbiñe Amiama, konplize, begia kliskatuz.

Purrustada bat eginik, urteko telebista unerik zinezkoena izan den deklarazioa eman du Lorea Gernikak orduan:

– Zelako eltzekari ederrak egiten dituzun, esaten zidan beti nire hirugarren senarrak. Nire senar horrek, beste senar eta nobio askok lez, uste zuen maitasunaren emaitza dela lapikokoaren goxoa. Baina zein da sukaldearen eta maitasunaren sekretua?

Hau bai sekretua: kazetariak ez daki, kontixu.

– Esate baterako, nire bigarren senarra saiatzen zen sukaldean, baina lardastu besterik ez zuen egiten. Ez zen lasai egoteko gauza tipula perdeatzen zen bitartean, eta txitxirioak ere beratu barik nahi izaten zituen egosi, eta nire lehen senarrak berriz...

– Ederto, Lorea, ederto... Baina zein da sukaldearen eta maitasunaren sekretua?

– Ez duzu ulertu? Maitasunaren sekretua pazientzia da.

Senar ohien adiskideak edo senideak topatzen dituelarik, soberako zurikeria sumatzen du beti Lorea Gernikak. Kutsu hipokrita hartzen die entzun behar di-

tuen hitzei. Esaten diotenaren iruntzira pentsatzen dutela denek iruditzen zaio, denek, ansolatarrek, subizatarrek, arbonatarrek. Senarrak tratu txarrean eduki edo pozoitu egin izan balitu bezala... Badu aski bizkar alargunaren tristura bere gain hartu ahal izateko, baina beste hori, hildakoen ingurukoen adeitasuna, jasanezina zaio. Izan dituen senar eta nobio guztien mendekua izan behar du, duda barik. Antxoen tripetan mokoka dabiltzan antxetei beha geratu da telebistakoengandik hastanduta.

– Laztana, maitasuna barkatzen jakitea da, esaten zidan gainera txatxu hark!

Ez daki zehazki zeinek, lehen, bigarren, hirugarren senarrak edo Caracasera alde egin dion beste mutilzahar dotore horrek. Edo guztiek.

– Astiro kenduko nizkieke tripak, bai... Niri apurka burua kendu izan didaten moduan.

Berba sentitu batzuk egin dizkiote elkarri alkateak eta antolatzaileek ahapeka, txapeldunaren hasperenok hunkiturik.

Laidako hondartzan birringarrizko monumentuak egiten dituenean bezain alai bizi izan da ordu eta erdiz Lorea Gernika eskuak bete lan, *sortzailearen* zazpi loriatan. Antxoa garbitzearen lan mekanikoak hartara-

turik *deusetaz* baizik pentsatzen ez duela, zoriontsua da. Horixe duke sekretua fabrikako umeak.

Krimena

Karrikan beheiti doa begiak malko, ez ordea haizearen hotzaz. Benedictine kikara bat behar luke: egin duen horretaz ari zaio burua egoskor, irudi bat pentsatzen du, irudi batek hartzen dio gogoa, nolako erpea kontzientziarena.

«Nondik sortu zait niri horrelakorik!».

Bihotzeko kiratsa ezin atxikiz, ihes egin du Lorea Gernikak. Egongelan geratu dira estalkia zabaldutako xurgatzekoa, urratutako zabor poltsa, barreiatu duen poltsako hautsa eta xurgatzekoak irentsitako xikinetik Lorea Gernikaren esku urduriek, ondikotz, berant atera duten pinpilinpauxa, gorpu. Irudi horrek, hautsetan ito pinpilinpauxarenak ibilki ditu orain Lorea Gernikaren burua, bihotza, belauna.

– Zer egiten duzu zuk nire etxean?

Eta kanoia harengana hurbilduz xurgatzeko tresnaren zirimola hurruparian irentsi du etsai okupatzailea, sofa xaharraren gaineko oihal ederrean pausatu hostotxo ihartua bezain erraz.

«Ni izan naiz, bai, nik hil dut!».

Ez daki, senezko egitada izan da, seme zozoak edo errain arranoak edo bisitari gogaikarriak etxetik kasatu ezin dituelako ordain gisako bat.

«Nik, pinpilinpauxa izatera deliberatu nuen honek!»

Ez da etxera itzuliko, urrunen gertatzen zaion alabarengana joanen da ezusteko latz bat emanez Frantzia eta Nafarroako xokolat onenarekin. Gerokoak, ikusiko.

«Etxe horretara ez, sekula ez!».

Baina noranahi joanagatik, Lycaena phlaeas lehertu horren irudia ibiliko du gibelean Lorea Gernikak beti, bere kakalardo horian doalarik Freitas & Filhos, Olano, LKW Walter, Detressangle, Gil Stauffer, Muga-Trans trailerrak atzean pusaka kokatzen zaizkioneko itomen horretan bizi beharko du beti, hautsa-xurgatzeko erraldoi baten hodian barrena eramana.

Bestela nahi

Aspaldikotan ikusi gabeko ezagun batekin egin du tupust Lorea Gernikak –gurditxoen talka– gaitzeko publizitatez eraberritu duten saltegiaren irteeran.

– Hamar urte orain hurrena elkar ikusirik, eta ez zara batere aldatu!

Damu batena balio duen begi-gorde arin bat egin du Lorea Gernikak erantzuteko.

– Barka nazazu ba!

Isilik geratu da inoizko ezaguna, sakelaren batean joka ari zaion telefonoari entzungor. Iduri luke lanak dituela esana konprenitzeko. Beste adeitasunen bat umotzen ari da beharbada. Edo aspaldikoak gomutara ezin ekarriz.

– Ez nuen uste...

Eskua ezarri dio sorbaldan amultsu.

– Ez nuen uste horrelakoa zinenik!

Hausnarrean itzuli da Lorea Gernika. Lekua aurkitu du etxepean. Motorra itzali eta leihoa ixteko biraderari eraginik, inguruan pentsamendua entzun liezaiokeen inor ez dagoela ziurtaturikoan, itsutu egin ditu begiak.

«Neuk ere ez nuen uste horrelakoa nintzenik!».

Malko bana masailetan behera, bestela nahi eta ezin hori.

«Baina... Horrelakoa nintzenik uste ez bazuen, gezurra da ez naizela batere aldatu!».

Maria Callasen CDa ipini du irratian eta erosketetara abiatu da ostera, Bizeten opera ezagunena kantari.

Telefonoaren adarra

«Gaur mezu bat jaso duzu zenbaki honetarik...».

Valentziako laranjen eskaintza? Hurrengo bozketei buruzko inkesta? Medikua, azken azterketaren berri emateko? Semea New Yorketik? Nolako ikaramendu samurra, eguna kanpoan emanik etxeratutakoan telefonoaren adarra altxatzea!

«Mezuak entzuteko, sakatu izartxoa!».

Bisita gutxi hartzen du Aian bizi denez geroztik, eta menturaren baten ustean sakatu du beraz Lorea Gernikak arrotza egin zaion zenbakiko mezura.

«Joxetxo! Eugenio nauk! Deituidak lehenbailehen!».

Gorde egin du mezua. Zapatak kendu eta gatz-ozpindutako ur epeletan sartu ditu gero minberaturiko oin zintzoak. Larritasunezko dei bat, inondik ere. Berriz entzun du mezua. Telefonoaren aholkuak jarraituz, deitzaileari erantzuteko botoiari eman dio.

– Bai, esan! –bera da, ahots mehe hori.

– Eugenio al zara?

– Hala naiz, bai.

– Aizu, Josetxo ez dago hemen.

– Bere idazkaria al zara?

– Bai, bere idazkari berria naiz.

– Mesedez, azaltzen denean, esaiozu niri deitzeko.

– Eugeniori, ezta?

– Eugenio Ibarrondori.

– Ibarrondo, oñatiarra? Ez zara izanen...!

– Zarauztarra!

Etxepeko bikote gazte batek oparitu dion albahaka artatzen hasi da, xomorroren bat dabilkio hostoak zulatzen. Ez da lapurra harrapatzen asko saiatu. O, humanitatea! Beti larri, beti bakar, laguntzarik ez... Galdua dugu elkarrenganakoa! Telefonoa hartu du ostera. Azken deiaren zenbakira automatikoki deitzeko botoia sakatu du.

– Aizu, Eugenio, Josetxoren idazkaria naiz, Aiatik deitzen dizut...

– Ondo da, esan.

– Hitz egin al duzu Josetxorekin?

– Ez du deitu, deika ari naiz baina ez dit hartzen.

– Hona ere ez du deitu... Aizu, Eugenio, badaezpada, esadazu zer behar duzun eta nik...

– Zuk esaiozu Josetxori deitzeko Eugeniori!

Haserrea zuritu gabe eskegi du Eugenio Ibarrondo jaunak. Zeinen gogorra den jendea lagundu nahi dion

hurkoarekin! Garaztailua bete eta landareak ihinztatzera irten da balkoira. Hasperen egin du itsasorantz. Bihotza betetzen diote eguzkiaren apaltzeok. Xomorroa bakean utzita *Che bella cosa na jurnata* '*e sole* kantari jardun du hosto ihartuak kentzen, italiera larilarilo tremolo batzuekin indartuz, telefonoak jo duen arte behintzat: ozen, egoskor, Aiako harri guztiak eta Lorea Gernikaren mami guztiak izulaborrian jartzeko gisan. Eugenio Ibarrondo izanen da, Josetxo delako horrekin hitz eginen zuen eta... Edo Josetxo bera izanen da! Deskonektatu egin du telefonoa. Hainbatetan bezala, izerdi hotza etorri zaio kopetara.

Afaria prestatzen hasi baino lehen, «Telefonoa konektatu» idatzi du sukaldeko mahaian zabaldu gabe zaborretarako daukan publizitate zorro ireki gabean.

Nondik ez dakiela, mende beteko loa etorri zaio oheratu den orduko.

Bihar ausarki gosalduko du, esparadrapo bana ipiniko du orpoetan, ibiltzeko oinetako arinak jantziko ditu, telefonoa konektatuko du eta Tolosa alderako autobusean sartuko da. Ibiliko da, erosiko du, bisitatuko du, oparituko dio, bazkalduko dute... Demaseko eguna izanen du. Baina autobusean bertan, egindako eta esandako guztiak Filipinetara bidalita –zakur bat

bezala ehortzi zuten amaren esaldi jostailua– nolako ikaramendu samurra etxera heldu eta telefonoaren adarra altxatzea!

«Gaur mezu bat jaso duzu zenbaki honetarik...».

Harrotasuna

Poltsa zabalarazi dio aurrekoari mugazainak, barnea arakatu dute latexean babestutako eskuek. Plastiko zuri batean bildutako paketetxoa atera du.

– Zer duzu hau?

– Lurra, Euskal Herriko lur ederra. Noan orotara daramat sorterria. Hiltzen banaiz edo banaute, hauxe izanen da ene pausatokia.

Hori bai herritasuna!, pentsatu du Lorea Gernikak. Baina bibotea goratu du, susmoz, aduanetako izardunak.

– Ongi da, pasa zaitez hona.

Beste bi mugazainek hartu dute gizona, eta atean Kontrola dioen gela batean sartu dute.

– Aitzina, anderea! Ongi etorri gurera!

Eta sar dadila agindu dio bibotedun zurrunak, lepotik dakarren poltsari begia atxiki behar dionik pentsatzeke. Lorea Gernikak ez zuen horrelakorik espero, berak ere nahi zuen... «Poto honetan Euskal Herriko ura dakart. Ezin dut bizi nire sorterriko ura gabe!» nahi zuen esan, doan guztietara eramaten duen Benedictinez beteriko petaka erakutsiz. Aduanako aretotik

palmondoen gerizpe urrunera pauso batzuk eman eta itzulerdi egin du. Turisten puskak miatzen diharduen mugazainarengana hurbildu da.

– Aizu, barkatu... Lehengoan irakurri nuen Beijingen aire garbiko potoak saltzen dituztela, eta nik, orduan, ura jaso nuen, Euskal Herriko ura...

Algara egin du aduanako izardunak.

– Hemen ez gaude Beijingen, baina badauzkagu txinatarrak. Zernahi salduko dizute!

Beste argitasunik gabe, anderea taxi on batean uzteko eskatu dio aldamenean zeukan polizia iraultzaileari. Eta gazte adeitsu honek nongoa den galdetu dionez aireportuko ateetarako bidean, Lorea Gernikak erraz atzendu ahal izan du aduanakoak eman nahigabea, petaka erakustea atzendu zaion era berean.

– Ni Laminerrekakoa. Badakizu, gazte, zer diren laminak?

Koko mamia baino zuriagoko guayabera luzitzen duen beltzaran gordin bat hurbildu zaie palmondoetara baino lehen, «Lorea Gernika» dioen pankarta eskuan.

Erratza

Eskaileretan behera dakarte galtzarbeetarik helduta, ondoeza egiten bazaio eror ez dadin. Odolik ez otoi, lana garbi. Itaunketa gelatik beheko ziegara, isilik, sekretakoek hebaindu duten neska gaztea dakarte: bera. Eta mailadia amaitutakoan, ziegen karrajuan, emakumezko bat erratza pasatzen, bata urdina soinean. Bekoz beko geratzen zaio, baina polizientzat egiten du hitz:

«Oraindik bizirik? Akaba ezazue behingoz piztia hau!».

Emakumezkoak emakumezkoari, horrelakorik! Zertatik horrelako gorrotoa? Alargunen bat? Berdin zaio, ez du konprenitzen ahal.

Eskaileretan behera dakarte galtzarbeetarik helduta, ondoeza egiten bazaio eror ez dadin. Odolik ez otoi, lana garbi. Itaunketa gelatik beheko ziegara, isilik, sekretakoek hebaindu duten neska gaztea dakarte: bera. Eta mailadi amaitutakoan, ziegen karrajuan, emakumezko bat erratza pasatzen, bata urdina soinean. Bekoz beko geratzen zaio, baina polizientzat egiten du hitz:

«Oraindik bizirik? Akaba ezazue behingoz piztia hau!».

Antzerkia egiten du, ez zuen horrelakorik desio. Emakumezko dohakabe hark puntuak irabazi nahi zituen, garbitzaile lanpostua galtzeko beldurrak biziko zen. Poliziak baino poliziago izatea beste aukerarik ez. Balitekeela iruditzen zaio. Barkatu egiten dio.

Eskaileretan behera dakarte galtzarbeetarik helduta, ondoeza egiten bazaio eror ez dadin. Odolik ez otoi, lana garbi. Itaunketa gelatik beheko ziegara, isilik, sekretakoek hebaindu duten neska gaztea dakarte: bera. Eta mailadia amaitutakoan, ziegen karrajuan, emakumezko bat erratza pasatzen, bata urdina soinean. Bekoz beko geratzen zaio, baina polizientzat egiten du hitz:

«Oraindik bizirik? Akaba ezazue behingoz piztia hau!».

Eskaileretan behera dakarten poliziek ez diotela inoiz erantzuten ohartu da gaur. Portaera hark lotsa emanen balie bezala, edo nazka. Gorrotoa ez baina zeharreko elkartasuna ez ote zen garbitzaile harena, pentsatu du. Akabatzen bazuten aukerarik ez egiten zizkiotenak egiteko. Estalizko errukia izan zitekeen. Eskertu egiten dio.

Ez daki bizi izan duen edo obsesioren batetik sortu zaion, aldiak izaten ditu. Zenbaitetan oroituaren antza hartzen dio sarritxo egiten duen amets honi, Lorea Gernika izan baino lehenagoko bizitzaren batean gertatua.

Lorontzia

Ilunabarretan geranioak garaztatzeko ohitura izan du beti, ez du galdu amak txertatu zion zaletasuna. Behin, hosto ihartu batzuk kentzen makurka nekatuta tentetu zelarik, gizonezko bat ikusi zuen beste espaloiko balkoian, erretzen eta berari, Lorea Gernikari beha inolako eginestalirik gabe. Ez zuen ezagutzen, etxea egin berria zen eta kanpotarrek bete zuten. Erretzailea gizajoa, bigarren senarra ere hala zen. Eta gizon hark kasu egin, eskua gora, zigarroa atzamarren artean, agur egin, diosala. Ahalke, egongela barrura erretiratu zen Lorea Gernika.

Begiluze ez bestea!

Biharamunean gizona kukuka ostera, eskua inarroska linternatxo gorri ketsu horrekin...

Lotsagabe arraioa!

Halako batean, nahiz eta zigarrorik ez, gora egin zuen Lorea Gernikaren eskuak. Bestelako ilunabarra gertatu zen, etortzen dira horrelakoak, Lorea Gernikari behintzat ailegatzen zaizkio. Ez da bere gorputzaren jabe osoro, ez. Descartes?

Hostoa kendu hostoa sortu, etxeak elkarrengana hurbilduz joan dira traba arkitektoniko guztiak suntsituz. Bi etxeetako balkoiek elkar joko dute laster, beso barruan daude ia, karkaba estu bat. Fenomeno paranormalak Etxarri-Aranazko karrika nagusian. Ikusgarria. Autobusak Burgosetik. Istilu gorria trafikoarekin. Alkatetza galdu zuen alderdia ahaleginean ari da jendea berotzen, protesta gogorrak behar ditu.

Epaitegian musukatu dira –masailetan– Lorea Gernika eta bigarren senarraren inolako antzik ez duen gizontxo atsegina. Benetako begiluzeren batek salatu ditu! Beti dago zelatariren bat ilunabarrean batzen diren maitale platonikoen bekaizti.

– Eta, honenbestez, kondenatzen zaituztet...

Aldamenean daukan gizon ondraduari heldu dio eskutik, amultsu, bero.

– Zu lasai!

Buru eta bihotz, proiektuz betetako lorontzia izaten jarraitzen du, oraindik ere, Lorea Gernikak: hostoa kendu, hostoa sortu.

Izan ala ez izan

Noiztenka ohartzen da atzamar azkazaldunak dituela, eta azkazalei buruzko gogoetan hasten da: hazi egiten dira, hazi... Orduak pentsamendua azkazaletan, ez ordea perla baten bila zikindu zituenekoa oroitzeko.

– Zer bilakatuko nintzateke azkazalak moztuko ez banitu?

Eta gero, basakatu eta tigre eta gepardo artean Amaia Ezpeldoi ospetsua azaltzen zaio piztiarik gaiztoenaren gaiztakerian okerreko galdera zuzenduz...

– Zer ote gara bilakatzen azkazalak mozten ditugun aldi bakoitz?

Baina Lorea Gernikak jaso du zer edo zer geriza moztuz eta belarria kenduz, mutilazioaren aditua da...

– Ikasi dut, Amaia, ikasi dut: perfekziora ergeltzen gara azkazalak mozten ditugun aldi bakoitz.

Oihanean ezkutatu zaio piztia, gaiztoena da. Hurrengo batean, nork daki, elkar ikusiko dute ausaz gaueko tren bustiren batean, begiak pindarka.

Eta ulu saminetan dira laketuko, ustez eta ikaratzen gaituztela.

Bizitzaren aurka zegoela esan zuen godaletak berriro betez, bere pertsonaia aintzat harturik.

Nori interesatuko zaizkio koitadu baten istorioak?

Niri, erantzun nion aulkitik jauzi eginda.

Ea ba, ikus dezagun azala, eta zorroa urratzen hasi zen.

Ez nion gaia desbideratzen utzi, nik idatzia zen bere bizitza, ez berak kontatua, eta seguruenik ezta bizi izana ere.

Hori al naiz ni? Zeinen dotore!